Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen

(Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen dagokion urteko kontuekin batera 2022 abenduaren 31an bukatutako ariketa)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

KPMG Auditores, S.L.
Iberdrola dorrea
Euskadi plaza, 5
17. solairua
48009 Bilbo

Urteko kontuen ikuskapen-txostena, kontu-ikuskari independente batek egina

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeko Batzar Nagusiari

Iritzia

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen (Erakundea) urteko kontuak ikuskatu ditugu. Horiek bere baitan hartzen dituzte 2022ko abenduaren 31ko balantzea, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta memoria.

Gure iritzian, erantsita doazen urteko kontuek, alderdi garrantzitsu guztietan, zehaztasunez jasotzen dituzte Erakundearen 2022ko abenduaren 31ko ondarea eta finantza-egoera, baita data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzak eta eskudiru-fluxuak ere, aplikatzekoa den finantza-informaziori buruzko esparru arauemailearen —memoriaren 2(a) oharrean identifikatzen da— eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitate-printzipioen eta -irizpideen arabera.

Iritziaren funtsa

Kontu-ikuskapena egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskapeneko jarduerari buruzko araudiari jarraitu diogu. Arau horien arabera, gure erantzukizunak aurrerago zehazten dira gure txostenaren atal honetan: Kontu-ikuskariaren erantzukizunak urteko kontuen ikuskapenarekiko.

Erakundearekiko independenteak gara, Espainian urteko kontuen gure ikuskapenari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunen arabera (independentziarekin lotutakoak barne direla), eta kontu-ikuskapeneko jarduerari buruzko araudiari jarraituz. Ildo horretatik, ez dugu kontu-ikuskapenaz bestelako zerbitzurik egin, eta, adierazitako araudian ezarritakoaren arabera, ez da gertatu beharrezko independentziari eragin dion egoera edo inguruabarrik, hura arriskuan jarri duenik.

Gure ustez, lortu dugun kontu-ikuskapeneko ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du gure iritzia azaltzeko.

Kontu-ikuskapenaren alderdi garrantzitsuenak

Kontu-ikuskapenaren alderdi garrantzitsuenak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, uneko aldiari dagokion urteko kontuen gure ikuskapenean nabarmenentzat hartutako oker materialerako arriskuak. Arrisku horiek aztertu ditugu urteko kontuen osotasunari dagokion gure ikuskapenaren testuinguruan eta horien inguruan landu dugun iritzian oinarrituta, eta ez dugu bereiz adierazi arrisku horiei buruzko iritzia.

KPMG Auditores, S.L., Espainiako erantzukizun mugatuko sozietatea, eta KPMG International Limited Ingalaterrako bermeko sozietate mugatuari afiliatutako firma kide independenteen KPMGko erakunde globaleko firma kidea.
Eskubide guztiak erreserbatuta.
Paseo de la Castellana, 259C 28046 Madril

Kontu Ikuskarien Erregistro Ofizialean S0702 zenbakiarekin inskribatua, eta Zinpeko Kontu Zentsoreen Institutuko Sozietateen Erregistroan 10 zenbakiarekin.
Madrilgo Merkataritza Erregistroa: 11.961. liburukia, 90. folioa, 8. sekzioa, M-188.007 orria, 9. inskripzioa.
IFZ: B-78510153

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

Finantza-inbertsioetako zorroaren existentzia eta balorazioa

Erakundearen 2022ko abenduaren 31ko finantza-inbertsioetako zorroa finantza-tresnetan inbertituta dago (ikus 6. oharra), eta aplikatzekoak diren horien balorazio-arauak erantsita doazen urteko kontuen 4. oharrean deskribatuta daude.

Finantza-tresna horien existentzia eta balorazioa funtsezko faktorea dira Erakundearen ondare-funtsa zehazteko eta haren hornidura teknikoak kalkulatzeko. Hortaz, gure ikuskapenaren alderdi garrantzitsutzat hartzen dugu hori.

Prozedura horien barruan, gure ikuskapenaren testuinguruan, Erakundearen kontrol-sistemen diseinua eta ezarpena ebaluatu ditugu, finantza-tresnetako zorroaren existentziarekin eta balorazioarekin lotuta.

Gainera, Erakundearen finantza-inbertsioetako zorroaren existentziari eta balorazioari dagokienez, jarraitutako prozedura nagusiak hauek dira:

- Erakunde gordailuzainak egiaztatu digu Erakundearen finantza-inbertsioetako zorroko inbertsioak eta partaidetzak badauela 2022ko abenduaren 31n.
- Kotizatutako baloreen lagin adierazgarri baterako, 2022ko abenduaren 31ko balorazioa egiaztatu dugu. Horretarako, Erakundeak kontabilizatutako baloreak alderatu ditugu merkatu antolatuetako kotizazio-prezioekin.
- Merkatu antolatuetan kotizatzen ez diren inbertsio kolektiboko erakundeentzat, erakunde horiengandik edo horiek administratzen dituzten sozietate kudeatzaileengandik partaidetza horiek existitzearen baieztapena lortu dugu, eta, era berean, sozietate kudeatzaile horiek emandako likidazio-balioak berrikusi ditugu eta horiek Erakundeak kontabilizatutako balioekin alderatu ditugu. Horrez gain, inbertsio kolektiboko sozietate horien eskura dauden urteko azken kontu ikuskatuak berrikusi ditugu.
- Epemugara arte mantendutako finantza-inbertsioen narriadura objektiboki zehazteari dagokionez, Erakundeak erabilitako irizpideak indarrean dagoen araudira egokitzen diren ebaluatu dugu, eta egiaztatu dugu tituluek 2022ko abenduaren 31n duten arrazoizko balioa, ikus daitezkeen merkatuko datuetatik lortutakoa, haien kostu amortizatuaren aldean.
- Egiaztatu dugu, finantza-inbertsioetako zorroarekin lotuta, urteko kontuei buruzko informazioa egokia ote den aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearen arabera.

Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena

Bestelako informazioak 2022ko ekitaldiko kudeaketa-txostena soilik biltzen du. Hori aurkeztea Erakundearen administratzaileen erantzukizuna da eta ez dago sartuta urteko kontuen barruan.

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

Urteko kontuen ikuskapenari buruzko gure iritziak ez du hartzen kudeaketa-txostena. Kudeaketa-txostenaren gaineko gure erantzukizuna da, kontu-ikuskapenaren jarduerari buruzko araudiak eskatzen duenaren arabera, kudeaketa-txostena urteko kontuekin bat ote datorren ebaluatzea eta horren berri ematea, kontu horien ikuskapena egitean lortutako erakundeari buruzko ezagutzatik abiatuta, eta ikuskapenean ebidentzia gisa lortutakoaz bestelako informaziorik barne hartu gabe. Era berean, kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiaren araberakoak ote diren ebaluatzea eta horren berri ematea. Egin dugun lanean oinarrituta, ondorioztatzen badugu oker materialik dagoela, horren berri ematera behartuta gaude.

Egindako lana oinarri hartuta, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, kudeaketa-txostenean jasotako informazioa bat dator 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzkoarekin, eta haren edukiak eta aurkezpenak bete egiten dute aplikatzekoa den araudia.

Gobernu Batzordearen erantzukizuna urteko kontuekin lotuta

Gobernu Batzordeak du erantsita doazen urteko kontuak aurkezteko erantzukizuna. Horiek jaso egin behar dute Erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza, erakunde horri Espainian aplikatzekoa zaion finantza-informazioaren esparru arauemailearen arabera, barne-kontrolari buruzkoa barne dela, beharrezkotzat jotzen denean urteko kontuak iruzur edo akats baten ondoriozko oker materialik gabe prestatu ahal izateko.

Urteko kontuak prestatzean, Gobernu Batzordeak erantzukizuna du Erakundeak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko ahalmena baloratzeko, eta, hala badagokio, funtzionamenduan dagoen enpresarekin lotutako gaiak aditzera emateko, funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabilita; salbu eta administratzaileek Erakundea likidatzeko asmoa badute edota beste hautabide errealistarik badago.

Kontu-ikuskariaren erantzukizunak urteko kontuen ikuskapenarekiko

Gure helburua da arrazoizko segurtasuna lortzea, urteko kontuak, osorik hartuta, iruzur edo akats baten ondoriozko oker materialetatik aske daudela ziurtatzeko, eta gure iritzia jasoko duen ikuskapen-txostena egitea. Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila handia da, baina ez du ziurtatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskapeneko jarduerari buruzko araudiaren arabera egindako ikuskapenak dagoen oker material bat beti antzemango duenik. Okerrak iruzur edo akats baten ondorio izan daitezke, eta oker materialtzat hartzen dira banaka edo batera arrazoiz aurreikus daitekeenean eragina izango dutela urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan.

Kontu-ikuskapenaren barruan, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskapeneko jarduerari buruzko araudiaren arabera, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu kontu-ikuskapen osoan. Era berean:

- Identifikatu eta baloratzen ditugu iruzur edo akats baten ondoriozko urteko kontuetako oker materialaren arriskuak, eta bidezko ikuskapen-prozedurak aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko. Gainera, ikuskapen-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzirako oinarri bat emateko. Iruzurraren ondoriozko oker material bat ez antzemateko arriskua handiagoa da akats baten ondoriozko oker material baten kasuan baino. Izan ere, iruzurrak berekin ekar ditzake berariazko kolusioa, faltsutzea, ez-egiteak, apropos egindako okerreko adierazpenak edo barne-kontrola saihestea.

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

- Ikuskapenerako garrantzitsua den barne-kontroleko ezagutza lortzen dugu, inguruabarren arabera egokiak izango diren ikuskapen-prozedurak diseinatzeko asmoz, ez, ordea, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia adierazteko helburuarekin.

- Aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna ebaluatzen dugu, baita kontabilitate-zenbatespenen eta administratzaileek emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

- Ondorioztatzen dugu egokia ote den administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea eta, lortutako ikuskapen-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu ba ote dagoen ala ez dagoen ziurgabetasun materialik, funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko Erakundearen ahalmenari buruzko zalantza nabarmenak sor ditzaketen gertakari edo baldintzekin lotuta. Ziurgabetasun materialen bat dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskapen-txostenean ohartarazi beharra daukagu urteko kontuetan agertutako informazioaren inguruan; edota, agertutako informazioa egokia ez denean, aldatutako iritzi bat adierazi behar dugu. Gure ondorioak gure ikuskapen-txostenaren datara arte lortutako ikuskapen-ebidentzian oinarritzen dira. Dena den, etorkizuneko gertakariak edo baldintzak izan daitezke Erakundeak funtzionamenduan dagoen enpresa izateari uzteko arrazoia.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, agertutako informazioa barne dela. Era berean, urteko kontuek azpian dauden transakzioak eta gertakariak jasotzen ote dituzten —irudi zehatza islatzeko moduan— ebaluatzen dugu.

Erakundearen administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, ikuskapena egiteko planifikatuta dauden irismena eta unea aztertzeko, baita ikuskapenaren aurkikuntza garrantzitsuak eta ikuskapenean zehar identifikatzen dugun barne-kontrolaren edozein hutsune nabarmen aztertzeko ere.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen administratzaileei jakinarazitako arrisku nabarmenen artean, urteko kontuen ikuskapenean uneko aldian garrantzi handiena dutenak zehazten ditugu. Beraz, horiek dira nabarmenentzat hartutako arriskuak.

Gure kontu-ikuskapenean arrisku horiek deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek haiek jendaurrean ezagutzera ematea debekatzen badute.

KPMG Auditores, S.L.
Kontu Ikuskarien Erregistro Ofizialean erregistratua, S0702 zk.

Mikel Arana Lechosa
Kontu Ikuskarien Erregistro Ofizialean erregistratua, 1708 zk.

2023ko apirilaren 12an

itzarri EPSV

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Urteko kontuak
2022ko abenduaren 31

Kudeaketa-txostena
2022ko ekitaldia

(Kontu-ikuskapenari buruzko txostenarekin batera)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien balantzeak

(Milaka eurotan adieraziak)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

	Oharra	2022	2021
A) AKTIBOA			
A-1) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	6	40.448	101.004
A-2) Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak		-	-
A-3) Bestelako finantza-aktiboak zentzuzko balioan, galdu-irabazietan aldaketak dituztenak	6	785.685	702.261
I. Ondare-tresnak		439.034	401.457
II. Zorraren balio adierazgarriak		319.815	269.770
III. Tresna hibridoak		26.836	31.034
V. Bestelakoak		-	-
A-4) Saltzeko erabilgarri dauden finantza-aktiboak		-	-
A-5) Kobratzeko maileguak eta partidak	6	2.460	16.976
I. Zorra adierazten duten baloreak		-	-
II. Maileguak		-	-
III. Kreditu-erakundeetako gordailuak		-	14.953
V. Gizarte-aurreikuspeneko jarduerako eragiketen ondoriozko kredituak		-	-
VI. Berraseguru-eragiketen ondoriozko kredituak		-	-
VIII. Eskatutako ordainketak		-	-
IX. Bestelako kredituak		2.460	2.023
A-6) Epemugara arte mantendutako inbertsioak	6	224.030	159.009
A-7) Estaldurako eratorriak		-	-
A-8) Berraseguruaren partaidetzak hornidura teknikoetan		-	-
A-9) Ibilgetu materiala eta higiezinetako inbertsioak		-	-
A-10) Ibilgetu ukiezina	5	320	314
I. Merkataritzako funtsa		-	-
III. Bestelako aktibo ukiezina		320	314
A-11) Partaidetzak taldeko eta elkartutako erakundeetan		-	-
A-12) Aktibo fiskalak		-	-
A-13) Bestelako aktiboak		-	-
A-14) Saltzeko mantendutako aktiboak		-	-
AKTIBOA GUZTIRA		1.052.943	979.564

Erantsitako memoria 2022. urteko kontuetan barne hartuta dago.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien balantzeak

(Milaka eurotan adieraziak)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

	Oharra	2022	2021
A) PASIBOA			
A-1) Negoziatzeko mantendutako finantza-pasiboak		-	-
A-2) Bestelako finantza-pasiboak zentzuzko balioan, galdu-irabazietan aldaketak dituztenak			-
A-3) Ordaintzeko zorrak eta partidak	6	298	246
I. Mendeko pasiboak		-	-
III. Gizarte-aurreikuspeneko jarduerako eragiketen ondoriozko zorrak		-	-
IV. Berraseguru-eragiketen ondoriozko zorrak		-	-
VI. Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak		-	-
VII. Kreditu-erakundeekiko zorrak		-	-
IX. Bestelako zorrak		298	246
A-4) Estaldurako eratorriak			-
A-5) Hornidura teknikoak	8	1.050.568	977.504
I. Kontsumitu gabeko kuotetarako hornidura		-	-
II. Uneko arriskuetarako hornidura		-	-
III. Gizarte-aurreikuspeneko jarduerako eragiketen ondoriozko hornidura		1.050.568	977.504
IV. Prestazioetarako hornidura		-	-
V. Mozkinetan parte hartzeko hornidura		-	-
VI. Bestelako hornidura teknikoak		-	-
A-6) Hornidura ez-teknikoak		-	-
A-8) Gainerako pasiboak		-	-
A-9) Saltzeko mantendutako aktiboei lotutako pasiboak		-	-
PASIBOA GUZTIRA		1.050.866	977.750
B) ONDARE GARBIA			
B-1) Funts propioak	7	1.772	1.500
I. Funts mutuala		50	50
III. Erreserbak		1.450	1.062
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak		-	-
VI. Bazkideen bestelako ekarpenak		-	-
VII. Ekitaldiko emaitza		272	388
VIII. (Konturako egonkortze-erreserba)		-	-
B-2) Balio-aldaketen ondoriozko doikuntzak		-	-
B-3) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	7	305	314
ONDARE GARBIA GUZTIRA		2.077	1.814
PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA		1.052.943	979.564

Erantsitako memoria 2022. urteko kontuetan barne hartuta dago.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietarako galdu-irabazien kontuak

(Milaka eurotan adieraziak)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

	Oharra	2022	2021
I. BGAE-EN AURREIKUSPEN PLANETAKO JARDUEREI LOTUTAKO KONTUA		**272**	**388**
I.1 Ekitaldiari egotzitako kuotak, berrasegurua kenduta	10	111.679	108.299
I.2 Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak		-	-
I.3 Ekarpen zehaztuko gizarte-aurreikuspenari lotutako inbertsioetako sarrerak	6(b)	589.360	382.619
I.4 Bestelako sarrera teknikoak		-	-
I.5 Ekitaldiko prestazioak, berrasegurua kenduta	10	(23.894)	(20.930)
I.6 Bestelako hornidura teknikoen aldakuntza, berrasegurua kenduta (+ edo -)	8	(73.064)	(153.878)
I.7 Mozkinetako partaidetza		-	-
I.8 Ustiapen-gastu garbiak	10	(863)	(852)
I.9 Bestelako gastu teknikoak (+ edo -)	10	(158)	(154)
I.10 Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak		-	-
I.11 Ekarpen zehaztuko gizarte-aurreikuspenari lotutako inbertsio-gastuak	6(b)	(602.788)	(314.716)
I.12 Guztizko partziala (BGAE-en aurreikuspen planetako jarduerei lotutako kontuaren emaitza)		272	388
II. BGAE-EK EGINDAKO GAINERAKO JARDUEREI LOTUTAKO KONTUA		-	-
II.1 Ekitaldiari egotzitako kuotak, berrasegurua kenduta		-	-
II.2 Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak		-	-
II.3 Bestelako sarrera teknikoak		-	-
II.4 Ekitaldiko prestazioak, berrasegurua kenduta		-	-
II.5 Bestelako hornidura teknikoen aldakuntza, berrasegurua kenduta (+ edo -)		-	-
II.6 Mozkinetako partaidetza		-	-
II.7 Ustiapen-gastu garbiak		-	-
II.8 Bestelako gastu teknikoak (+ edo -)		-	-
II.9 Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak		-	-
II.10 Guztizko partziala (BGAE-ek egindako gainerako jarduerei lotutako kontuaren emaitza)			-
III. GIZARTE AURREIKUSPENAREN JARDUEREI LOTUTA EZ DAGOEN KONTUA		-	-
III.1 Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak			
III.2 Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak	5	(9)	(10)
III.3 Bestelako sarrerak	7(b)	9	10
III.4 Bestelako gastuak		-	-
III.5 Guztizko partziala (gizarte-aurreikuspenaren jarduerei lotuta ez dagoen kontuaren emaitza)		-	-
III.10 EKITALDIKO EMAITZA (I.12+II.10+III.5)		**272**	**388**

Erantsitako memoria 2022. urteko kontuetan barne hartuta dago.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria

(Milaka eurotan adieraziak)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA ORRIA

		Oharra	2022	2021
I) EKITALDIKO EMAITZA			**272**	**388**
II) AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK			(9)	(10)
II.1	Saltzeko erabilgarri dauden finantza-aktiboak		-	-
II.2	Eskudiru-fluxuen estaldurak		-	-
II.3	Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura		-	-
II.4	Kanbio- eta bihurketa-diferentziak		-	-
II.5	Kontabilitate-asimetrien zuzenketa		-	-
II.6	Saltzeko mantendutako aktiboak		-	-
II.7	Irabazi/(galera) aktuarialak langileentzako ere luzerako ordainsarien ondorioz		-	-
II.8	Aitortutako bestelako sarrerak eta gastuak	7(b)	(9)	(10)
III) AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA			**263**	**378**

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak

(Milaka eurotan adieraziak)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

B) ONDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETEN GUZTIZKO EGOERA ORRIAK

	Funts propioak							
2022	Funts mutuala	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Bazkideen bestelako ekarpenak	Ekitaldiko emaitza	Balio-aldaketen ondoriozko doikuntzak	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
SALDOA 2021AREN AMAIERAN	50	1.062	-	-	388	-	314	1.814
I. Aitortutako sarrera eta gastuak guztira	-	-	-	-	272	-	(9)	263
II. Eragiketak bazkideekin	-	-	-	-	-	-	-	-
Funts mutualaren gehikuntzak								
(-) Funts mutualaren murrizketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza-pasiboak ondare garbi bihurtzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Negozio-konbinazio baten emaitzazko ondare garbia gehitzea (gutxitzea)	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako eragiketak bazkideekin	-	-	-	-	-	-	-	-
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	388	-	-	(388)	-	-	-
Intsuldaketak ondare garbiko partiden artean		388	-	-	(388)	-	-	-
Bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-	-	-
SALDOA 2022AREN AMAIERAN	50	1.450	-	-	272	-	305	2.077

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak

(Milaka eurotan adieraziak)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

B) ONDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETEN GUZTIZKO EGOERA ORRIAK

	Funts propioak							
2021	Funts mutuala	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Bazkideen bestelako ekarpenak	Ekitaldiko emaitza	Balio-aldaketen ondoriozko doikuntzak	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
SALDOA 2020AREN AMAIERAN	50	692	-	-	370	-	324	1.436
I. Aitortutako sarrera eta gastuak guztira	-	-	-	-	388	-	(10)	378
II. Eragiketak bazkideekin	-	-	-	-	-	-	-	-
Funts mutualaren gehikuntzak								
(-) Funts mutualaren murrizketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza-pasiboak ondare garbi bihurtzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Negozio-konbinazio baten emaitzazko ondare garbia gehitzea (gutxitzea)	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako eragiketak bazkideekin	-	-	-	-	-	-	-	-
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	370	-	-	(370)	-	-	-
Intsuldaketak ondare garbiko partiden artean		370			(370)			
Bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-	-	-
SALDOA 2021AREN AMAIERAN	50	1.062	-	-	388	-	314	1.814

Erantsitako memoria 2022. urteko kontuetan barne hartuta dago.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien eskudiru-fluxuen egoera-orriak

(Milaka eurotan adieraziak)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

	2022	2021
A) USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK		
A.1) Gizarte-aurreikuspeneko jarduera		
1. Kuoten kobrantzak	111.679	108.299
3. Lagatako berraseguruaren kobrantzak	-	-
4. Lagatako berraseguruaren ordainketak	-	-
5. Prestazioen ordainketak	(23.894)	(20.930)
7. Bestelako ustiapen-kobrantzak	-	-
8. Bestelako ustiapen-ordainketak	(1.609)	(1.519)
9. Aurreikuspen-jardueraren eskudiru-kobrantzak guztira (1+3+7)=I	111.679	108.299
10. Aurreikuspen-jardueraren eskudiru-ordainketak guztira (4+5+8)=II	(25.503)	(22.449)
A.2) Bestelako ustiapen-jarduerak		
3. Bestelako jardueren kobrantzak	-	-
4. Bestelako jardueren ordainketak	-	-
5. Bestelako ustiapen-jardueren eskudiru-kobrantzak guztira (3)=III	-	-
6. Bestelako ustiapen-jardueren eskudiru-ordainketak guztira (4)=IV	-	-
A.3) Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxu garbiak guztira (I+II+III+IV)	**86.176**	**85.850**
B) INBERTSIO JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK		
B.1) Inbertsio-jardueren kobrantzak		
1. Ibilgetu materiala	-	-
2. Higiezinetako inbertsioak	-	-
3. Aktibo ukiezinak	-	-
4. Finantza-tresnak	421.266	252.799
5. Partaidetzak taldeko, talde anitzeko eta elkartutako erakundeetan	-	
6. Kobratutako interesak	13.386	22.373
7. Kobratutako dibidenduak	16.624	11.328
8. Negozio-unitatea	-	-
9. Inbertsio-jarduerekin lotutako bestelako kobrantzak	-	-
10. Inbertsio-jardueren eskudiru-kobrantzak guztira (1+2+3+4+5+6+7+8+9)=VI	451.276	286.500
B.2) Inbertsio-jardueren ordainketak		
1. Ibilgetu materiala		-
2. Higiezinetako inbertsioak		-
3. Aktibo ukiezinak		-
4. Finantza-tresnak	(598.008)	(322.412)
5. Partaidetzak taldeko, talde anitzeko eta elkartutako erakundeetan	-	-
6. Negozio-unitatea	-	-
7. Inbertsio-jarduerekin lotutako bestelako ordainketak	-	-
8. Inbertsio-jardueren eskudiru-ordainketak guztira (1+2+3+4+5+6+7)=VII	(598.008)	(322.412)
B.3) Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak guztira (VI-VII)	**(146.732)**	**(35.912)**

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien eskudiru-fluxuen egoera-orriak

(Milaka eurotan adieraziak)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

	2022	2021
C) FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK		
C.1) Finantzaketa-jardueren kobrantzak		
1. Mendeko pasiboak	-	-
2. Fondo mutuala zabaltzearen ondoriozko kobrantzak	-	-
3. Bazkideen ekarpenak	-	-
5. Finantzaketa-jarduerekin lotutako bestelako kobrantzak	-	-
6. Finantzaketa-jardueren eskudiru-kobrantzak guztira (1+2+3+5)=VIII	-	-
C.2) Finantzaketa-jardueren ordainketak		
2. Ordaindutako interesak	-	-
3. Mendeko pasiboak	-	-
4. Bazkideei ekarpenak itzultzearen ondoriozko ordainketak	-	-
5. Bazkideei ekarpenak itzultzea	-	-
7. Finantzaketa-jarduerekin lotutako bestelako ordainketak	-	-
8. Finantzaketa-jardueren eskudiru-ordainketak guztira (2+3+4+5+7)=IX	-	-
C.3) Finantzaketa-jardueren eskudiru garbiaren fluxuak guztira (VIII-IX)	-	-
Kanbio-tasen aldakuntzen efektua (X)	-	-
Eskudiruaren eta baliokideen gehikuntza/murrizketak guztira (A.3+B.3+C.3+-X)	**(60.556)**	**49.938**
Eskudirua eta baliokideak aldiaren hasieran	**101.004**	**51.066**
Eskudirua eta baliokideak ekitaldiaren amaieran	**40.448**	**101.004**
Eskudiruaren eta baliokideen osagaiak aldiaren amaieran		
1. Kutxa eta bankuak	36.660	98.020
2. Bestelako finantza-aktiboak	3.788	2.984
3. Ageriko banku-zorpeko itzulgarriak	-	-
Eskudirua eta baliokideak guztira aldiaren amaieran (1+2+3)	**40.448**	**101.004**

Erantsitako memoria 2022. urteko kontuetan barne hartuta dago.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Urteko kontuen memoria

2022ko abenduaren 31

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

(1) Izaera eta jarduera nagusiak

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea (aurrerantzean, Erakundea edo Itzarri) 2004ko uztailaren 27an eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak eskatuta, Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen izen sozialaren pean, eta izen hori gaur duenarekin aldatu zen 2013ko maiatzaren 13an. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, 2004ko uztailaren 30ean, Erakundearen eraketa, estatutuak, prestazioen araudia eta txosten ekonomikoa onartu zituen. Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Erregistro Ofizialean izena emanda dago, 260-A zenbakiarekin.

Erakundearen helbide soziala Vitoria-Gasteizen dago, San Antonio kaleko 2.ean (5. oharra).

Estatutuetan adierazten denez, Erakundearen helburu soziala da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalarentzat lan egiten duten langileen erretiroarekin, ezintasun iraunkorrarekin, heriotzarekin edo iraupen luzeko langabeziarekin lotutako kontingentzien ondoriozko prestazio publikoak osatzea; eta jardun-esparrua, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoa du.

2019ko azaroaren 26an izandako Euskal Jaurlaritzako Kontseiluan, 2019ko abenduaren 1eko hasiera-datarekin, %1,5ko ekarpena onartu zen. Ekarpen hori 2020ko azarora arte mantendu zen. Eusko Jaurlaritzaren 2020ko abenduaren 29ko Kontseiluan, %2ko ekarpena ezartzea onartu zen, 2020ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2021eko eta 2022ko ekitaldian mantendu dena.

BGAE-ei buruzko indarreko Araudiak eta Dekretuak nahitaez bete beharreko arau hauek, besteak beste, ezartzen dituzte:

(a) BGAE-en administrazio-gastuak haien estatutuetan jasoko dira eta, ekarpen zehaztuko sistemaren pean diharduten erakundeen kasuan, gastu horiek ezarriko dira aurreikuspen-plan bakoitzari lotutako ondarearen edo haren eta beraren errendimenduen arabera. Gainera, urteko zenbaketan, ezin izango dituzte muga hauek gainditu:

- Planari atxikitako ondarearen arabera soilik kalkulatzen direnean, ondarearen % 1,6.
- Bi aldagai erabiltzen badira, atxikitako ondarearen % 1 eta errendimenduen gaineko % 10.

Erakundearen Prestazioei buruzko Araudiaren 21. artikuluaren arabera, Erakundearen administrazio-gastuak atxikitako ondarearen % 0,44an ezartzen dira.

(b) Aktiboetan inbertitzeko, dibertsifikazioari, dispertsioari eta kongruentziari buruzko irizpide hauek bete beharko dira:

- Aurreikuspen-plan bakoitzaren gutxienez % 70 aktibo egoki hauetan inbertituko da:
  - ELGAren alorreko merkatu arautuetan negoziatzeko onartutako errenta finkoko eta aldakorreko balore eta eskubideak.
  - Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio eta partaidetzak, eta honako hauetan araututako baldintza jakin batzuk betetzen dituzten higigarrietako inbertsio-funtsak: 85/611/EEE Zuzentaraua eta horren aurrerantzeko aldaketak eta inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 Legea eta horren aurrerantzeko aldaketak.

- Ageriko gordailuak edo hamabi hilabeteko edo hortik beherako eperako gordailuak. Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2013ko maiatzaren 21ekoa Aginduaren eta maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11.8 artikuluaren bidez, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek inbertsioak egiteko egokitzat jotzen dira honako hauek: kreditu-erakundeetan zazpi urterako edo epe laburragorako egindako gordailuak —betiere erakunde horien egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean badago eta gordailuak ELGAren dibisa-merkatuetan negoziatzen diren monetetan izendatuta badaude—, dagozkien finantza-erakundeen pasibo-kontuetan idazten direnak, eta martxoaren 19ko 183/2013 Dekretuak enpresa txiki eta ertainei, enpresaburu indibidualei eta profesional autonomoei laguntza finantzarioa emateko arautzen duen programan aipatzen direnak badira.

- Ondare higiezinak eta eskubide erreal higiezinak.

- Hipoteka-kredituak, lehenengo hipoteka bada betiere.

- Merkatu arautuetan negoziatutako finantza-tresna eratorriak.

- Aktiboak behar bezain dibertsifikatuta egongo dira. Merkatu arautuetan kotizatzen duen enpresa berean aktiboetan eginiko inbertsioak ezin izango du BGAEren aktiboaren % 5 gainditu, ezta % 10 ere talde bereko enpresek jaulkitako aktiboak direnean. Finantza-tresna eratorrietan ere muga hauek aplikatu behar dira.

- BGAE-ek ezingo dute beraien aktiboaren % 2 baino gehiago inbertitu enpresa berak jaulkitako balore ez kotizatuetan, ezta % 4 baino gehiago ere talde bereko enpresek jaulkitako baloreak direnean.

- Aurreikuspen-planen sustatzaile edo babesleek jaulkitako kotizatu gabeko baloreen inbertsioak ezingo du planaren guztizko aktiboen % 2 gainditu.

- Higiezinetako inbertsioak ezingo du aurreikuspen-planaren guztizko aktiboaren % 20 gainditu, eta higiezin bakar batek ere ezingo du aurreikuspen-planaren aktiboaren % 10 gainditu.

- Kapital-arriskuko sozietateek jaulkitako baloreetan egindako inbertsioak ezingo du gainditu jaulkitako guztizko tituluen edo zirkulazioko partaidetzen % 20 balio nominalean.

- Inbertsio kolektiboko erakunde bakar batean titulatzeko funtsetan edo higigarrietako inbertsio-funtsetan egindako inbertsioa plan bakoitzaren aktiboaren % 20ra arte heldu ahal izango da.

(c) BGAE batek, erretirorako, zein heriotzarako, ezintasun iraunkorrerako, iraupen luzeko langabeziarako edo gaixotasun larrietarako aurreikuspen-planez gain, beste ekintza batzuk egingo baditu, argi eta garbi zehaztu beharko du ekintza bakoitzari dagozkion aktibo eta pasiboak. Inolaz ere ez da posible izango eskubide eta betebeharrak jardueren artean transferitzea.

(d) Gobernu Batzordeak Erakundearen inbertsio-politika onetsiko du, gutxienez hiru urtean behin Batzordeak berak berrikusiko duen inbertsio-printzipioen idatzizko adierazpen baten bidez.

Erakundeko Gobernu Batzordeak 2022ko martxoaren 17an egindako bilkuran onartu zuen datozen hiru ekitaldietan indarrean egongo den inbertsio-printzipioen adierazpenaren berrikuspena.

(e) BGAE batean kontingentziak estaltzeko aurreikuspen-plan bat baino gehiago ezarriko balitz, kudeaketa, BGAE horrek erregistro eta kontabilizazioko barne-prozedura bat prestatu beharko du. Prozedura horrek aukera eman behar du plan bakoitzari lotutako eskubideak eta betebeharrak bereiz esleitzeko.

Erakundeak aurreikuspen-plan bakarra biltzen du, Itzarri Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Plana deritzona, eta bere aktiboak eta pasiboak atxikita mantentzen ditu. Horrek Planaren bazkide eta onuradunen eskubide ekonomikoak zehazki finkatzeko aukera ematen du.

(f) Arrisku biometrikoak beren gain hartzen duten eta/edo inbertsioaren emaitza zein prestazio-maila jakin bat bermatzen duten BGAE-ek nahikoa zuzkidura tekniko eratu beharko dute beren gain hartutako betebeharrekiko. Zuzkidura teknikoen gutxieneko zenbatekoa kalkulatzeko, metodo aktuarial prospektibo zuhurrak erabili beharko dira, kontuan hartuta prestazioen eta kotizazioen arloan dauden konpromiso guztiak, Erakundearen pentsio modalitateen arabera. Zenbateko horrek nahikoa izan behar du uneko prestazioak finantzatzeko, baita bazkide osoek sortutako pentsio-eskubideetatik eratortzen diren konpromisoak islatzeko ere. Zuhurtziaz ere aukeratuko dira pasiboak baloratzeko hipotesi ekonomikoak eta akturialak.

(g) Zuzkidura teknikoen kalkuluan erabilitako interes-tasa teknikoa izango da aurreikuspen-planari esleitutako inbertsioen barruko errentagarritasun-tasaren arabera zehaztutakoa. Inola ere ezin du portzentajezko hiru puntuz gainditu aurreikusitako inflazio-hipotesia, zuzkidura teknikoak zehazteko erabilitakoa, eta % 5eko gehieneko muga izango du.

(h) Erakundeek aktibo nahikoak eta egokiak gorde beharko dituzte, berariaz prestatutako azterlan akturialetan zehaztutako zuzkidura teknikoa estaltzeko helburuarekin. Hiru urtez jarraian beharrezko zuzkidura teknikoak asetzeko adina funts eraturik ez dagoenean edo ekitaldi bakoitzean dauden funtsak zuzkidura teknikoen % 90etik beherakoak direnean, Erakundeak, ezinbestez, berrorekatzeko plan bat egin beharko du, eta plan horrek Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren onespena beharko du.

(i) Arrisku biometrikoen estaldura beren gain hartzen duten edota inbertsioaren emaitza zein prestazio-maila jakin bat bermatzen duten BGAE-ek beren zuzkidura teknikoak gauzatzeko baino aktibo gehiago izan behar dituzte beti, erreserba modura. Aktibo horiek aurreikusteko moduko edozein konpromisotik kanpo egongo dira, eta gastuen eta prestazioen —aurreikusitakoen nahiz errealen— arteko desbideratzeak xurgatzeko kaudimen-marjina erabilgarritzat balioko dute. Segurtasun-marjinarako, zuzkidura teknikoen gutxienez % 4ko zenbatekoa edukiko da.

(j) Ekarpen zehaztuko aurreikuspen-planak barne hartzen dituzten BGAE-etarako, segurtasun-marjinak gutxienez % 0,125eko zenbatekoa eduki beharko du ekarpen zehaztuko aurreikuspen-planei atxikitako hornidurekiko, eta plan horietan bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen du. Segurtasun-marjinak bere osotasunean osatuta egon behar du ekitaldi bakoitzaren itxieran, gutxienez. Aipatutako segurtasun-marjina, 2016ko ekitalditik hasita, gehienez hamar ekitalditan osatu behar da, dagokion zenbatekoaren urteko hamarrenaren gutxienekoarekin. Erakundeak 2022ko abenduaren 31n ezarritako gutxienekoa betetzen du (16. oharra).

(k) Gutxieneko funts mutuala 50.000 eurotan ezartzen da eta aktibo egokietan gauzatuta eta guztiz ordainduta egon beharko du. Memoriaren 7. oharrean funts mutualaren zenbatekoa zehazten da. Horrek 2022ko abenduaren 31n eskatutako gutxienekoa betetzen du.

Erakundeak 2022ko maiatzaren 4an egindako Batzar Nagusian zenbait aldaketa onartu ziren honako artikulu hauei dagokienez: 26. artikulua, “Onuradunak”; 46. artikulua, “Batzar Nagusiaren bilkuren modalitateak, deialdia eta quoruma”; eta 54. artikulua, “Estatutuen Gobernu Batzordearen deialdia”.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Urteko kontuen memoria

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalean bildutako erakundeak izango dira bazkide babesleak. Horretarako, lehenbizi atxikitzeko hitzarmen bat sinatu behar dute eta, gero, Erakundearen Gobernu Batzordeak hitzarmen hori onetsi behar du. Bazkide babesle gisa sartzeko eskabidea egin ahal izango dute, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Aholku-emaileko erakundeek.

Bazkide oso edozein pertsona fisiko izan daiteke, baldin eta beharrezkoa izango da bazkide babesleren batentzat bi urtez lan egin izan badu karrerako funtzionario nahiz bitarteko funtzionario gisa, estatutupeko langile edo bitarteko langile gisa, lan-kontratuko langile gisa, behin-behineko langile gisa edo goi-kargu gisa.

Oro har, zerbitzugintzari uzten bazaio edo hura eraginkorki eteten bada, eta, horren ondorioz, bazkideek ohiko ordainsariak jasotzeari uzten badiote, bazkide babesleek eta bazkide osoek ez dute ekarpen gehiagorik egingo, eta bazkide osoak etendura-egoeran dauden bazkide bihurtuko dira.

Erakundearen prestazioei buruzko erregelamenduan ezarritakoaren arabera, bazkide pasibo bihurtuko dira aurretik bazkide oso aktibo edo etendura-egoeran dauden bazkide oso izan direnak, baldin eta erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik edo iraupen luzeko langabeziagatik prestazioa jasotzeko eskubidea badute. Era berean, onuradun bihurtuko dira, hildako bazkide osoaren kausadun izanik, Erakundearen aurrean eskubide ekonomikoen hartzekodun bihurtzen direnak. Hildako bazkideak izendatutako pertsonak izango dira onuradunak, eta inor izendatu ezean, estatutuetan ezarritako lehentasun-ordena jarraituko da.

Norbait bazkide pasibo edo onuradun aitortzeko, beharrezkoa da prestazioen erregelamenduan jasotako prestazioak ordaintzeko gertakaria jazotzea eta Erakundeko Gobernu Batzordeak hala aitortzea.

Bere Estatutuei jarraituz, Erakundea ekarpen zehaztuko enpleguko modalitatean sartzen denez, ez du aurreikusitako prestazioekin lotutako inongo arriskuren estaldura bere gain hartzen.

Erakundeko bazkide babesleek egindako ekarpenak beren ordainsari finkoen eta aldizkako ordainsarien arabera egotziko zaizkie bazkide osoei. Era berean, bazkide osoek borondatezko ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Erakundeak hartutako sistema finantzarioa eta aktuariala finantza-kapitalizazio indibidualekoa da. Beraz, honako hauek dira kontingentzia gertatzen den unean kapitalizazio-prozesuaren ondorioz kuantifikatuko diren prestazioak: bazkide bakoitzaren ekarpenak gehi doako ondare-gehikuntzak eta haiei dagozkien inbertsioetatik lortutako errentak, dagozkien gastuak kenduta.

<u>Prestazioen estaldura</u>

Erakundeak kontingentzia hauek estaltzen ditu:

i) Bazkide osoaren erretiroa edo antzeko egoera. Ezin bada egoera horretara heldu, prestazioa jasotzeko beharrezkoa izango da 60 urte beteta izatea, eta bazkide osoak Gizarte Segurantzan edo Estatuko Klase Pasiboetan alta ematea eragin duen jarduera uztea.

ii) Baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa bazkide osoaren ohiko lanbiderako.

iii) Bazkidearen heriotza. Horrek sor ditzake alarguntasun-prestaziorako eskubidea, zurztasun-prestaziorako eskubidea eta beste oinorde batzuen aldeko eskubideak.

iv) Bazkide osoaren iraupen luzeko langabezia.

Prestazioetan, Erakundeko bazkide pasiboen edo onuradunen aldeko eskubide ekonomikoak aitortzen dira, Erakundeak estalitako kontingentziaren bat gertatzen bada. Prestazioen eskubide ekonomikoak bazkideak kapitalizatutako aurrezkiaren berdinak izango dira.

Bazkide pasiboek edo onuradunek modu hauetakoren batean jasoko dituzte prestazioak, kontingentzia gertatzen den unetik aurrera:

- Kapital gisa; ordainketa bakar batean egingo da, eta bazkideak eraginetarako datan dituen eskubideen zenbatekoaren baliokidea izango da.

- Finantza-errenta gisa: aldizkakotasun erregularrarekin segidako bi ordainketa edo gehiago eskuratzea, urte bakoitzean gutxienez ordainketa bat barne dela.

- Era mistoan; errenta-modalitateetako edozein konbina daiteke, kapital moduko kobrantza bakarrarekin.

Erakundearen Estatutuen 28. artikuluan eta Prestazioei buruzko Erregelamenduaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, bazkide aktiboek eta pasiboek ezingo dute Erakundean bere alde aitortuta dituen eskubide ekonomikoak beste borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde batera mobilizatu.

Etendura-egoeran dauden bazkide osoek, borondatezko edo beharrezko eszedentzia-egoeran ez badaude, eskubide ekonomikoak mobilizatzeko eskubidea balia dezakete, bazkide babeslearekin lan-edo estatutu-harremana bukatzen denean. Eskubide guztiak mobilizatu beharko dira; lehentasunez, enpleguko beste plan batera. Enpleguko planik ezean, beste edozein aurreikuspeneko planetara mobilizatu beharko dira, baldin eta Erakundearen Estatutuetan eta Prestazioei buruzko Erregelamenduan finkatutako prestazioak kobratzeko erari buruzko ezaugarriak eta baldintzak betetzen badira.

Nahi duten onuradunek aukera izango dute eskubide ekonomikoak mobilizatzeko, beste edozein borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde batera edo Itzarrira bertara, aldi berean Erakundearen bazkide osoak baldin badira.

(2) Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

(a) Irudi zehatza

Urteko kontuak Erakundearen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira, eta aurkeztu dira indarrean dagoen legeriaren arabera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren martxoaren 16ko 86/2010 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Kontabilitate Planean ezarritako arauen arabera. Helburua da Erakundeak 2022ko abenduaren 31n duen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza erakustea, eta zehazki aurkeztea, halaber, data horretan amaitutako ekitaldian zehar egindako eragiketen emaitzak, ondare garbian izandako aldaketak eta sortutako eskudiru-fluxuak.

Erakundearen administratzaileen ustez, 2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak (2023ko martxoaren 24an aurkeztu dira) inolako aldaketarik gabe onartuko ditu Batzar Nagusiak.

Urteko kontu hauek osatzen dituzten dokumentuetan jasotako zenbatekoak milaka eurotan adierazita daude, berariaz bestelakorik adierazten ez bada behintzat.

(b) Aplikatu ez diren kontabilitate-printzipioak

Nahitaez aplikatu behar diren eta urteko kontu hauetan eragin esanguratsua duten kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira.

2022ko eta 2021Eko abenduaren 31n, indarrean dagoen legeriaren arabera, Erakundea ez dago behartuta urteko kontu bateratuak aurkeztera.

(c) Kontabilitate-politikak aplikatzean garrantzitsuak diren iritziak eta ziurgabetasunak baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak

Urteko kontuak prestatzeko, etorkizunari buruzko hipotesietan eta ziurgabetasunetan oinarritutako iritziak eta zenbatespenak erabili dira, batez ere honako alderdi hauei dagozkienak: finantza-aktiboen balio-narriadura, hornidura ez-teknikoak, merkatu aktiboetan negoziatu gabeko finantza-aktiboen arrazoizko balioaren kalkulua.

Aldian-aldian berrikusten dira erabilitako zenbatespenak eta hipotesiak, eta esperientzia historikoan eta une bakoitzean zentzuzkotzat jo diren beste faktore batzuetan oinarrituta daude. Berrikuspen horien ondorioz zenbatespen-aldaketa bat egongo balitz epealdi jakin batean, haren eragina epealdi horretan aplikatuko litzateke, eta, hala balegokio, hurrengoetan.

(d) Zenbait partidatan jasotako elementuak

Ez da balantzearen bi partidatan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

(e) Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

2022ko eta 2021eko ekitaldietan zehar ez aldaketarik egon kontabilitate-irizpideetan.

(f) Akatsak zuzentzea

2022ko eta 2021eko ekitaldietan zehar ez da zuzenketen ondoriozko doikuntzarik egon.

(g) Gastuak eta sarrerak egozteko irizpideak

Ordezkatzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte errealaren arabera egozten dira sarrerak eta gastuak, haietatik datorren korronte monetarioa edo finantzarioa noiz gertatzen den kontuan hartu gabe.

Galdu-irabazien kontuak jardueraren arabera behar bezala bereizita biltzen ditu aldi bakoitzari dagozkion sarrerak eta gastuak, indarrean dagoen arauak ezarritako banakapenen arabera (BGAE-en aurreikuspen-planetako jarduerak, BGAE-en gainerako jarduerak eta gizarte-aurreikuspeneko jarduerei lotu gabeko kontua).

Erakundeak aurreikuspen-plan bakar bati lotutako jarduera egiten du soilik.

Gastuak xedearen arabera sailkatuta daude galdu-irabazien kontuan. Dena den, hori ezinezkoa denean, kostuak egozteko irizpide analitikoak erabiltzen dira, eta irizpide horiek zentzuzkoak, objektiboak eta egiaztagarriak izan behar dute.

(h) Informazioa alderatzea

Urteko kontuetan aurkezten dira, alderatze-ondorioetarako, balantzearen, galdu-irabazien kontuaren, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriaren eta eskudiru-fluxuen egoera orriaren partida guztiak. Halaber, 2022ko ekitaldiko zenbatekoez gainera, aurreko ekitaldiari dagozkion zenbatekoak jasotzen dira. Horiek 2021eko ekitaldiko urteko kontuen parte ziren eta Akziodunen Batzar Nagusiak 2022ko maiatzaren 4an egindako bilkuran onartu zituen.

(3) Emaitzen banaketa

2022eko ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena, Erakundeko Gobernu Batzordeak Batzar Nagusiari onar dezan aurkeztuko diona, baita dagoeneko onartuta dagoen 2021ko ekitaldiari dagokiona ere, hauek dira:

	2022	2021
Banaketa-oinarria Galdu-irabaziak	272	388
Banaketa Borondatezko erreserbak	272	388

(4) Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

Urteko kontu hauek aurkezteko, aseguru-erakundeen Kontabilitate Plana EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen bereizgarrietara egokitzeko den martxoaren 16ko 86/2010 Dekretuan jasotako balorazio eta aurkezpenerako printzipio eta arauei jarraitu zaie; eta, halaber, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuan ezarritako xedapenak bete dira. Bi dekretuak Eusko Jaurlaritzak emanak dira.

(a) Ibilgetu ukiezina

(i) Hasierako aitortzea

Ibilgetu ukiezinean bildutako aktiboak horien eskuratze-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera kontabilizatuta agertzen dira, eta dagokien kostu-balioan aurkezteen dira balantzean. Kostu hori narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketen eta amortizazioen zenbatekoan minoratuta dago.

Erakundeak eskuratutako eta berorrek prestatutako aplikazio informatikoak —web-orriak garatzeko gastuak barne— aitortzen dira arrakasta teknikorako oinarritutako arrazoiak eta kostuen denbora-esleipen argia dauden neurrian. Aplikazio informatikoak mantentzeko gastuak, beraz, sortzen diren unean eramaten dira gastuetara.

(ii) Ondorengo kostuak

Ibilgetu ukiezinean sortutako ondorengo kostuak gastu gisa erregistratzen dira, aktiboengandik espero diren etorkizuneko mozkin ekonomikoak areagotzen badira salbu.

(iii) Balio-bizitza eta amortizazioak

Erakundeak, eskuratutako ibilgetu ukiezin bakoitzerako, horren balio-bizitza mugatua edo mugagabea den ebaluatzen du. Ondorio horietarako, ibilgetu ukiezin batek balio-bizitza mugagabea

duela esaten da eskudiru-fluxu garbiak sortuko dituen aldirako aurreikusteko moduko mugarik ez dagoenean.

Balio-bizitza mugatuak dituzten aktibo ukiezinen amortizazioa egiteko, zenbateko amortizagarria haien balio-bizitzan zehar sistematikoki banatzen da, metodo lineala aplikatuta. Aplikazio informatikoen kasuan, balio-bizitza hiru eta bost urte artekoa da.

Erakundeak, ekitaldi bakoitzaren amaieran, ibilgetu ukiezinen hondar-balioa, balio-bizitza eta amortizatzeko metodoa berrikusten ditu. Hasiera batean ezarritako irizpideetan izaten diren aldaketak zenbatespen-aldaketa gisa aitortzen dira.

(iv) Ibilgetuaren balio-narriadura

Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak eta ibilgetu ukiezinaren balioa narriatzearen ondoriozko galeren itzulketak ebaluatu eta zehazteko, Erakundeak ibilgetu ukiezinaren zenbateko berreskuragarria kontuan hartzen du, halakotzat ulertuta haren arrazoizko balioaren (salmenta-kostuak kenduta) eta erabilera-balioaren arteko zenbateko handiena. Ibilgetu ukiezinaren elementuak narriatzearen ondoriozko balorazio-zuzenketak eta haien itzulketa —haien arrazoi ziren inguruabarrik jadanik ez dagoenean— gastutzat edo sarreratzat aitortzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan.

(v) Erabiltzeko eskubideak

Erakundearen egoitza soziala diren lokalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak doan laga zituen. Erakundearen aldeko erabilera-eskubide horiek baloratu ondoren, ibilgetu ukiezin gisa, eta, aldi berean, jasotako dirulaguntza gisa erregistratu ziren Erakundearen ondare garbiari dagokion "Hartutako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak" epigrafean. Lagapen-epea mugagabea denez, Erakundeak 50 urteko epea kontsideratu du haien amortizazio linealerako.

(b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean bildutako aktiboak eskuratze-prezioan kontabilizatuta agertzen dira. Ibilgetu materiala kostu-balioan aurkezten da egoera-balantzean, narriaduragatik metatutako balorazio-zuzenketen eta amortizazioen zenbatekoan minoratuta.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, ibilgetu materialeko elementuak guztiz amortizatuta daude eta 212 mila euroko kostu-balioa dute.

(c) Finantza-tresnak

(i) Finantza-tresnak sailkatzea eta bereiztea

Finantza-tresnak finantza-aktibo gisa, finantza-pasibo gisa edo ondare-tresna gisa sailkatzen dira haien hasierako aitorpenaren unean, betiere kontratu-erabakiaren funts ekonomikoaren arabera eta finantza-aktibo, finantza-pasibo edo ondare-tresna kontzeptuen definizioa kontuan izanik.

Hasierako aitorpenaren unean Zuzendaritzaren asmoei eta ezaugarriei erreparatuta sailkatzen ditu Erakundeak hainbat kategoriatan finantza-tresnak.

Kontratu konbentzionalen bitartez tresnatutako finantza-aktiboen erosketak eta salmentak kontratazio- edo likidazio-datan aitortzen dira (kontratu konbentzionala esatean ulertuz alderdiek

elkarrenganako dituzten obligazioak araudiak edo merkatuaren zuzenketek ezarritako denbora-epe batean gauzatu behar direla eta ezin direla likidatu diferentzien bitartez).

(ii) Konpentsazio-printzipioa

Finantza-aktibo bat eta finantza-pasibo bat konpentsazioaren xede dira, bakarrik, Erakundeak eskubide exijigarria duenean aitortutako zenbatekoak konpentsatzeko, eta asmoa duenean kopuru garbia likidatzeko edo aktiboa gauzatu eta pasiboa deuseztatzeko, aldi berean.

(iii) Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak eta -pasiboak

Negoziatzeko mantendutako aktiboak edo pasiboak dira hasierako aitorpenaren unetik negoziatzeko mantendutzat sailkatzen direnak.

Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak eta -pasiboak arrazoizko balioan aitortzen dira hasieran. Erosketari edo jaulkipenari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak sortu ahala gastu gisa aitortzen dira galdu-irabazien kontuan.

Hasieran aitortu ondoren arrazoizko balioan aitortzen dira, eta aldakuntzak emaitzetan erregistratzen dira. Arrazoizko balioa ez da murrizten balizko salmentagatik edo beste bideren batetik erabiltzeagatik egin daitezkeen transakzio-gastuen ondorioz. Sortutako interesak eta dibidenduak izaeraren arabera sartzen dira partidetan.

(iv) Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-aktiboak

Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-aktiboak arrazoizko balioan aitortzen dira hasieran. Erosketari edo jaulkipenari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak gastu gisa aitortzen dira galdu-irabazien kontuan.

Hasieran aitortu ondoren arrazoizko balioan aitortzen dira, eta aldakuntzak emaitzetan erregistratzen dira. Balioa ez da murrizten balizko salmentagatik edo beste bideren batetik erabiltzeagatik egin daitezkeen transakzio-gastuen ondorioz. Sortutako interesak eta dibidenduak izaeraren arabera sartzen dira partidetan. Era berean, inbertsioak aktiboetan gauzatuta dauden kasuetan, eta aktibo horietan jo badaiteke eskuragarri dagoen informazioa ez dela hirugarrenekin erabat alderagarria eta merkatuko balioa aplikatzeak gainbalio bat aitortzea berekin ekarriko duela, berori ez da erregistratzen.

Arrazoizko balioa fidagarritasunez estimatu ezin den ondare-tresnetako inbertsioak eta inbertsioa hasten denetik hiru urte baino gutxiago dituzten kotizatu gabeko enpresetako inbertsioak, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatiko balorazio-zuzenketen metatutako zenbatekoa kenduta.

(v) Kobratzeko maileguak eta partidak

Kobratzeko dauden maileguak eta partidak honako hauek osatzen dituzte: merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituek eta kobrantza finko edo zehazgarriak dituzten merkataritzaz bestelako eragiketen ondoriozko kredituek. Horiek ez dira kotizatzen finantza-aktiboen beste kategoria batzuetan sailkatutakoez bestelako merkatu aktiboetan. Aktibo horiek hasieran arrazoizko balioaren arabera aitortzen dira, izandako transakzio-kostuak barne, eta geroztik kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa erabilita.

Nolanahi ere, finantza-aktiboak duten balio nominalaren arabera baloratzen dira, baldin eta ezarritako interes-tasarik ez badute, zenbatekoak mugaeguna bete badu edo epe laburrean jasotzea espero bada eta eguneratzearen ondorioa garrantzitsua ez bada.

(vi) Epemugara arte mantendutako inbertsioak

Epemugara arte mantendutako inbertsioak zorra adierazten duten baloreak dira, epemuga finkatua dutenak, merkatu aktibo batean negoziatzen diren kobrantza finko edo zehazgarriekin. Erakundeak horiei epemugara arte eusteko asmo irmoa eta ahalmena izan behar ditu, eta beste kategoria batzuetan sailkatuta daudenez bestelakoak dira. Kategoria honetan sailkatutako finantza-tresnei aplikatzekoak zaizkien balorazio-irizpideak eta kobratzeko dauden mailegu eta partidei aplikatzekoak zaizkienak berberak dira.

(vii) Taldeko, elkartutako eta talde anitzeko enpresen ondarean egindako inbertsioak

Taldeko, elkartutako eta talde anitzeko enpresetako inbertsioak hasiera batean kostuaren arabera aitortzen dira, hau da, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera, sortutako transakzio-kostuak barne direla; eta, ondoren, kontabilitate-balio teorikoaren ken narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketen zenbateko metatuaren arabera baloratzen dira.

(viii) Interesak eta dibidenduak

Interesak interes-tasa efektiboaren metodoaren arabera aitortzen dira.

Ondare-tresnetako inbertsioetatik datozen dibidendu-sarrerak horiek jasotzean Erakundearentzat eskubideak sortu direnean aitortzen dira. Banatutako dibidenduak ziurtasun osoz eskuratze-data baino lehen sortutako emaitzetatik baldin badatoz (eskuratzetik sozietate partaidetuak sortutako mozkinak baino zenbateko handiagoak banatu izateagatik), dibidendu horiek inbertsioaren kontabilitate-balioa minoratzen dute.

(ix) Finantza-aktiboen bajak

Finantza-aktiboei kontabilitatean baja emate zaie haiekin lotutako eskudiru-fluxuak jasotzeko eskubideak transferitzen direnean eta Erakundeak haien titulartasunaren ondoriozko arriskuen eta mozkinen zati handi bat eskualdatzen duenean.

Finantza-aktibo bati baja emateak berekin dakar emaitzetan bi hauen arteko diferentzia aitortzea: batetik, haren kontabilitate-balioa eta, bestetik, jasotako kontraprestazioaren batura (barne direla ondare garbian aitortutako sarrera eta gastuetan aitortu den edozein galera edo irabazi geroratu).

(x) Finantza-aktiboen balio-narriadura

Finantza-aktibo bat edo finantza-aktiboen multzo bat narriatuta dago eta narriaduraren ondoriozko galera bat sortu da, baldin eta aktiboaren hasierako aitorpenaren ondoren izan den gertaera baten edo gehiagoren emaitzazko narriaduraren ebidentzia objektiboa badago eta galera eragin duen gertaerak edo gertaerek fidagarritasunez estima daitekeen eragina badute finantza-aktiboaren edo horien multzoaren etorkizuneko eskudiru-fluxu estimatuen gainean.

Erakundeak, irizpide gisa, kobratu beharreko maileguen eta partiden narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak erregistratzen ditu, etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsietan murrizketa edo atzerapen bat sortzen denean, zordunaren kaudimen-gabezia dela-eta.

Era berean, ondare-tresnen kasuan, balio-narriadura dago aktiboaren liburuetako balioa berreskuratu ezin denean, haren arrazoizko balioan jaitsiera luzea edo garrantzitsua dela-eta.

(xi) Arrazoizko balioa

Finantza-aktiboen arrazoizko balioa zehazteko, merkatu aktiboetan kotizatutako prezioak hartzen dira erreferentzia gisa, batez ere.

Finantza-tresna hibridoak, hasierako unean nahiz hurrengo balorazioetan, arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, eta ekitaldiko galdu-irabazien kontuan egozten dira balio horretan gertatzen diren aldaketak. Eskuratzeari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan aitortzen dira.

(xii) Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak (merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak barne direla), negoziatzeko mantendutzat edota arrazoizko balioko finantza-pasibotzat (galdu-irabazien kontuan aldaketekin) sailkatzen ez direnean, hasiera batean beren arrazoizko balioaren arabera aitortzen dira, kenduta, hala badagokio, haien jaulkipenari zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostuak. Hasieran aitortu ondoren, kategoria honetan sailkatutako pasiboak kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa erabilita.

Nolanahi ere, finantza-pasiboek ezarritako interes-tasarik ez badute, zenbatekoak mugaeguna bete badu edo epe laburrean jasotzea espero bada eta eguneratzearen ondorioa garrantzitsua ez bada, duten balio nominalaren arabera baloratzen dira.

(d) Errentamenduak

Errentamendu operatiboko hitzarmenetatik datozen gastuak galdu-irabazien kontuan kargatzen dira, sortzen diren ekitaldian.

Errentamendu operatibo bat kontratatzean egiten diren kobrantza edo ordainketa guztiak kobrantza edo ordainketa aurreratutzat hartzen dira, eta emaitzei egozten zaizkie errentamendu-aldian zehar, alokatutako aktiboaren mozkinak lagatzen edo jasotzen diren heinean.

(e) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

Eskudiruan eta beste aktibo likido baliokideetan, kutxako eskudirua eta kreditu-erakundeetako ageriko banku-gordailuak sartzen dira. Kontzeptu horren barruan sartzen dira, halaber, likidotasun handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk, baldin eta eskudiruko zenbateko jakin batzuetan erraz bihur badaitezke eta balio-aldaketen oso arrisku txikian badute. Ondorio horietarako, eskuratze-dataz geroztik hiru hilabetetik beherako epemugak dituzten inbertsioak sartzen dira.

(f) Transakzioak atzerriko monetan

Atzerriko monetan egindako transakzioak moneta funtzionalera bihurtzen dira hasieran, transakzio-datan indarrean dauden kanbio-tasak erabilita. Transakzio horien likidazioaren ondorioz eta atzerriko monetan izendatutako aktibo eta pasibo monetarioen itxierako kanbio-tasetara bihurtzearen ondorioz atzerri-monetan izandako galdu-irabaziak galdu-irabazien kontuan aitortzen dira.

Kostu historikoaren arabera baloratzen diren atzerriko monetako diruaz bestelako partidak bihurtzeko, arrazoizko balio hori zehazten den datako kanbio-tasak erabiltzen dira.

Erakundeak abenduaren 31n atzerriko monetan mantentzen dituen aktibo guztien kontrabalioa, eurotan, honako hau da:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
USA dolarra	104.131	129.152
Peso mexikarra	11.301	5.467
Libera esterlina	9.731	9.300
Dolar australiarra	4.897	5.509
Dolar zeelandaberritarra	4.557	4.938
Yena	406	211
Franko suitzarra	1.260	695
Koroa daniarra	1.272	-
	137.555	155.272

Izaeraren arabera sailkatuta, Erakundeak abenduaren 31n atzerriko monetan mantentzen dituen aktiboen kontrabalioa, eurotan, honako hau da:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	6.424	1.047
Kobratzeko maileguak eta partidak	-	14.953
Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko bestelako finantza-aktiboak	131.131	139.272
	137.555	155.272

(g) Mozkinen gaineko zerga

Indarrean dagoen legeriak arautzen duenez, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek zeroko zerga-tasa dute sozietateen gaineko zergan. Ondorioz, erakunde horiek eskubidea dute kapital higigarriaren etekinen gainean egiten zaizkien atxikipenak itzul diezazkieten, salbuetsita jatorrian atxikipen bakarra duten finantza-aktiboetako etekin inplizituei dagozkien atxikipenak. Hala ere, bete beharrekoak dituzte sozietateen gaineko zergak erregimen orokorraren pean dauden subjektu pasiboei eskatzen dizkien eginbide formalak.

(h) Hornidura teknikoak – Gizarte-aurreikuspeneko jarduerako eragiketen ondoriozko hornidurak

Erakundeak epigrafe honetan sartzen ditu "Ekarpen zehaztuko aurreikuspen-planei lotutako hornidurak, bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duenean", Erakundearen aurreikuspen-jardueraren ondorioz hartutako obligazioei aurre egiteko eratutako hornidurei dagozkienak.

Erakundeak aurreikuspen-planari lotutako ondarean izandako aldaketa positiboa "Bestelako hornidura teknikoen aldakuntza, berrasegurua kenduta" kapituluaren kargura hornitzen du; "Gizarte-aurreikuspeneko jarduerako eragiketen ondoriozko hornidura – Ekarpen zehaztuko aurreikuspen-planei lotutako hornidurak, bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duenean" kapituluan abonatuta. Bestalde, "Bestelako hornidura teknikoen aldakuntza, berrasegurua kenduta" kapituluan abonatzen ditu lotutako ondarean izandako aldakuntza negatiboak, "Gizarte-aurreikuspeneko jarduerako eragiketen ondoriozko hornidura – Ekarpen zehaztuko aurreikuspen-planei lotutako hornidurak, bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duenean" kapituluaren kargura.

(i) Ingurumena

Erakundeak uste du ingurumena babesteari buruzko legeak behar bezala betetzen dituela. 2022ko eta 2021eko ekitaldietan, Erakundeak ez du kostu adierazgarririk izan edo inbertsio adierazgarririk egin kontzeptu honengatik, eta ez du beharrezko ikusi horniduraren bat erregistratzea horretarako, ez baitago urteko kontu hauei eragin diezaiekeen arrisku edo kontingentzia adierazgarririk, Erakundearen jarduera kontuan izanda.

(j) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Dirulaguntza itzulgarriak pasibotzat erregistratzen dira ez-itzulgarritzat hartzeko baldintzak bete arte. Dirulaguntza ez-itzulgarriak, berriz, ondare garbiari zuzenean egotzitako sarreratzat erregistratzen dira eta sarreratzat aitortzen dira oinarri sistematiko eta arrazoizko baten gainean eta dirulaguntzaren ondoriozko gastuekin lotuta. Sustatzaileengandik jasotako dirulaguntza ez-itzulgarriak funts propioetan erregistratzen dira zuzenean.

Ondorio horietarako, dirulaguntza ez-itzulgarritzat hartzen da dirulaguntza emateko erabaki indibidualizatu bat dagoenean, hura emateko ezarritako baldintza guztiak bete direnean eta kobratuko ez dela pentsatzeko zentzuzko arrazoirik ez dagoenean.

Dirulaguntza monetarioak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioan baloratzen dira, eta dirulaguntza ez monetarioak, berriz, jasotako ondasunaren arrazoizko balioan, biak ere haiek aitortzeko unearen arabera.

Ibilgetu ukiezinarekin, ibilgetu materialarekin eta higiezinetako inbertsioekin lotutako dirulaguntza ez-itzulgarriak ekitaldiko sarreratzat egozten dira dagozkion aktiboen amortizazioaren proportzioan, edo, hala badagokio, besterentzen direnean, haien narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketa egitean edo balantzean baja ematean. Gastu espezifikoekin lotutako dirulaguntza ez-itzulgarriak, berriz, gastu horiek sortzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan aitortzen dira, eta ustiapen-defizita konpentsatzeko emandakoak, ematen diren ekitaldian, non eta ez diren etorkizuneko ekitaldietako ustiapen-defizita konpentsatzeko erabiltzen, kasu horretan ekitaldi horietara egozten baitira.

Erakundearen kasuan, bere jarduera egiteko dituen lokalen erabilera lagatzea "Hartutako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak" epigrafean erregistratu da, eta dirusarrera gisa egotzi, aktibatutako erabilera-eskubideen amortizazioa gauzatzen den proportzio berean.

(k) Gastua xedearen arabera birsailkatzeko irizpideak

2(g) oharrean adierazten denez, gastuak banatzeko erabiltzen diren irizpideak, nagusiki, hauek dira: gastuen izaera, langileen arduraldia eta jarduerari lotutako ibilgetua.

(l) Lotutako aldeen arteko transakzioak

Oro har, Erakundearen eta taldeko enpresa baten arteko eragiketak hasierako unean kontabilizatzen dira arrazoizko balioan. Hitzartutako prezioa eta arrazoizko balioa berdinak ez badira, eragiketaren errealitate ekonomikoari erreparatuz erregistratzen da bien arteko diferentzia. Geroko balorazioa egiteko, horretarako dauden arauetan zehaztutakoa betetzen da.

(m) Sortutako kuota eta prestazioen ondoriozko dirusarrerak

Erantsitako galdu-irabazien kontuko "Ekitaldiari egotzitako kuotak, berrasegurua kenduta" epigrafeak Erakundeko bazkide osoek eta bazkide babesleek ekitaldian egindako ekarpenak jasotzen ditu.

Ordaindutako zenbatekoak erantsita doan galdu-irabazien kontuko "Ekitaldiko prestazioak, berrasegurua kenduta" epigrafean erregistratzen dira.

(5) Ibilgetu ukiezina

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, ibilgetu ukiezineko partidetan mugimendu hauek egon dira:

	Milaka eurotan				
	20.12.31	Gehitzeak	21.12.31	Gehitzeak	22.12.31
Kostua					
Erabiltzeko eskubideak	476	-	476	-	476
Aplikazio informatikoak	796	-	796	15	811
	1.272	-	1.272	15	1.287
Amortizazio metatua					
Erabiltzeko eskubideak	(152)	(10)	(162)	(9)	(171)
Aplikazio informatikoak	(796)	-	(796)	-	(796)
	(948)	(10)	(958)	(9)	(967)
	324	(10)	314	6	320

"Erabiltzeko eskubideak" kapitulua Erakundearen egoitza soziala hartzen duten lokalei dagokie. Ogasun eta Herri Administrazio Sailak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2005eko urtarrilaren 11n hartutako erabakiaren bidez doan laga zizkion lokal horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak Erakundeari.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n guztiz amortizatutako ibilgetu ukiezinaren ondasunak 796 mila euro dira.

Erakundeak ez du inbertsiorik egin taldeko enpresei, talde anitzekoei eta elkartuei erositako ibilgetu ukiezinean, ezta Espainiatik kanpo dauden ibilgetu ukiezineko elementuetan ere.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, ez aktibo ukiezinen gaineko erosketa- edo salmenta-konpromisorik.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, ez dago bermeekin edota titulartasun-murrizketekin lotutako edo pasiboen berme gisa pignoratutako ibilgetu ukiezinaren elementurik.

(6) Finantza-tresnak

(a) Finantza-aktiboen eta -pasiboen sailkapena kategorien arabera

Finantza-aktiboen eta -pasiboen sailkapenak, kategorien arabera, abenduaren 31n, xehetasun hau du (milaka eurotan adierazita):

2022		Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko bestelako finantza-aktiboak						
FINANTZA AKTIBOAK	Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak	Tresna hibridoak	Ondare-tresnak	Zorraren balio adierazgarriak	Kobratzeko maileguak eta partidak	Negoziatzeko mantendutak o finantza-aktiboak	Epemugarako inbertsio-zorroa	GUZTIRA
Ondare-tresnak:	--		439.034	-	-	-	-	439.034
- Kapitaleko finantza-inbertsioak	-	-	113.022	-	-	-	-	113.022
- Inbertsio-funtsetako partaidetzak	-	-	186.653	-	-	-	-	186.653
- Arrisku-kapitaleko funtsetako partaidetzak	-	-	139.359	-	-	-	-	139.359
Zorra adierazten duten baloreak	-	-	-	319.815	-	-	224.030	543.845
Tresna hibridoak	-	26.836	-	-	-	-	-	26.836
Eratorriak	-	-	-	-	-	-	-	-
Kreditu-erakundeetako gordailuak	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako kredituak:	-	-	-	-	2.460	-	-	2.460
- Bestelako kredituak administrazio publikoekin	-	-	-	-	1,907	-	-	1.907
- Gainerako kredituak	-	-	-	-	553	-	-	553
Diruzaintza	40.448	-	-	-	-	-	-	40.448
GUZTIRA	40.448	26.836	439.034	319.815	2.460	-	224.030	1.052.623

FINANTZA PASIBOAK	Ordaintzeko zorrak eta partidak	Guztira
Bestelako zorrak:		
- Zor fiskalak eta sozialak	148	148
Bestelako finantza-pasiboak	150	150
GUZTIRA	298	298

2021	Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko bestelako finantza-aktiboak							
FINANTZA AKTIBOAK	Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak	Tresna hibridoak	Ondare-tresnak	Zorraren balio adierazgarriak	Kobratzeko maileguak eta partidak	Negoziatzeko mantendutak o finantza-aktiboak	Epemugarako inbertsio-zorroa	GUZTIRA
Ondare-tresnak:	-	-	401.457	-	-	-	-	401.457
- Kapitaleko finantza-inbertsioak	-	-	96.911	-	-	-	-	96.911
- Inbertsio-funtsetako partaidetzak	-	-	194.127	-	-	-	-	194.127
- Arrisku-kapitaleko funtsetako partaidetzak	-	-	110.419	-	-	-	-	110.419
Zorra adierazten duten baloreak	-	-	-	269.770	-	-	159.009	428.779
Tresna hibridoak	-	31.034	-	-	-	-	-	31.034
Eratorriak	-	-	-	-	-	-	-	-
Kreditu-erakundeetako gordailuak	-	-	-	-	14.953	-	-	14.953
Bestelako kredituak:	-	-	-	-	2.023	-	-	2.023
- Bestelako kredituak administrazio publikoekin	-	-	-	-	1.786	-	-	1.786
- Gainerako kredituak	-	-	-	-	237	-	-	237
Diruzaintza	101.004	-	-	-	-	-	-	101.004
GUZTIRA	101.004	31.034	401.457	269.770	16.976	-	159.009	979.250

FINANTZA PASIBOAK	Ordaintzeko zorrak eta partidak	Guztira
Bestelako zorrak:		
- Zor fiskalak eta sozialak	158	158
Bestelako finantza-pasiboak	88	88
GUZTIRA	246	246

(b) Galdu-irabazi garbiak finantza-tresnen kategorien arabera

Galdu-irabazi garbien zenbatekoa, finantza-tresnen kategoriaren arabera, honako hau da:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Ondare-tresnen sarrerak – dibidenduak	16.623	11.328
Zor-tresnen sarrerak – kupoiak	14.899	12.917
Finantza-tresnen arrazoizko balioan izandako aldakuntzaren ondoriozko mozkinak	506.414	330.915
Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko mozkinak	9.946	17.205
Finantza-etorkizunen ondoriozko mozkinak	33.992	6.362
Kanbio-diferentzia positiboak	7.486	3.892
Ekarpen zehaztuko gizarte-aurreikuspenari lotutako inbertsioen sarrerak guztira	589.360	382.619

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Ibilgetu materiala eta inbertsioak kudeatzeko gastuak		
Bitartekaritza- eta artekaritza-gastuak	224	128
Ibilgetu materiala eta inbertsioak kudeatzeko bestelako gastuak	3.023	2.510
Finantza-tresnen arrazoizko balioan izandako aldakuntzaren ondoriozko galerak	571.748	295.007
Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko galerak	7.906	7.640
Finantza-etorkizunen ondoriozko galerak	15.389	5.735
Kanbio-diferentzia negatiboak	4.498	3.696
Ekarpen zehaztuko gizarte-aurreikuspenari lotutako inbertsioen gastuak guztira	602.788	314.716

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Ibilgetuaren eta inbertsioen gastuak (5. oharra)	(9)	(10)
Bestelako sarrerak —7(b) Oharra—	9	10
Lotu gabeko kontuaren sarrerak eta gastuak guztira	-	-

(c) Epemugen araberako sailkapena

Abenduaren 31n, finantza-aktiboen eta -pasiboen aurreikusitako epemuga, epemuga zehaztua edo zehazgarria dutenentzat, kategoriaren arabera, honako hau da (milaka eurotan adierazita):

	Finantza-aktiboak					
2022	2023	2024	2025	2026	2027 eta ondorengoak	Guztira
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	40.448	-	-	-	-	40.448
Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko bestelako finantza-aktiboak	40.925	45.986	24.865	36.328	198.547	346.651
Epemugara mantendutako finantza-aktiboak	29.761	1.549	27.025	21.169	144.526	224.030
Kobratzeko maileguak eta partidak	2.460	-	-	-	-	2.460
GUZTIRA	113.594	47.535	51.890	57.497	343.073	613.589

	Finantza-pasiboak					
	2023	2024	2025	2026	2027 eta ondorengoak	Guztira
Ordaintzeko zorrak eta partidak	298	-	-	-	-	298
GUZTIRA	298	-	-	-	-	298

	Finantza-aktiboak					
2021	2022	2023	2024	2025	2026 eta ondorengoak	Guztira
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	101.004	-	-	-	-	101.004
Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko bestelako finantza-aktiboak	41.029	21.966	38.594	21.165	178.050	300.804
Epemugara mantendutako finantza-aktiboak	11.869	5.066	1.545	26.769	113.760	159.009
Kobratzeko maileguak eta partidak	16.976	-	-	-	-	16.976
GUZTIRA	170.878	27.032	40.139	47.934	291.810	577.793

	Finantza-pasiboak					
	2022	2023	2024	2025	2026 eta ondorengoak	Guztira
Ordaintzeko zorrak eta partidak	246	-	-	-	-	246
GUZTIRA	246	-	-	-	-	246

(d) Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko bestelako finantza-aktiboak

Hona hemen abenduaren 31n balantzearen epigrafe hau osatzen duten saldoen xehetasuna:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Zorra adierazten duten baloreak	318.815	269.770
Tresna hibridoak	26.836	31.034
Ondare-tresnak	439.034	401.457
Kapitaleko finantza-inbertsioak	113.022	96.911
Inbertsio-funtsetako partaidetzak	186.653	194.127
Arrisku-kapitaleko funtsetako partaidetzak	139.359	110.419
	785.685	702.261

Informazioa aurkezten den datan, kategoria honen barruan sailkatutako tituluen arrazoizko balioa da hartzen den kreditu-arriskurik handiena.

2022ko abenduaren 31n, 3.349 mila eurotan izan dira epigrafe honetako tresna hibridoek eta zorraren balore adierazgarriek sortutako interes esplizituak eta epemuga bete ez duten interesak (1.911 mila eurotan izan ziren horiek 2021eko abenduaren 31n).

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, erakundearen balore-tituluak gordailuan zeuden edo gordailuan uzteko izapideak egiten ari ziren Cecabank, S.A.n eta Banca Marchen.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, adostutako inbertsioen inguruko arrisku-kapitalaren funtsetan zain dauden ordainketen eta partaidetzen arrazoizko balioaren xehetasuna hau da:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Arrazoizko baloia	139.359	110.419
Egiteko dagoen ordainketa	96.770	79.551
Hitzemandako inbertsioa	239.496	194.970

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, ez dago bermeekin edota titulartasun-murrizketekin lotutako edo pasiboen berme gisa pignoratutako finantza-tresnarik.

(e) Epemugara arte mantendutako inbertsioak

Aktiboaren epigafre hau, 2022ko eta 2021eko ekitaldiaren itxieran, kategoria honetan sartzeko 86/2010 Dekretuan finkatutako baldintzak betetzen dituzten zor-tresnek osatzen dute bere osotasunean.

Informazioa aurkeztutako datan, kategoria honen barruan sailkatuta dauden eta zorra adierazten duten baloreen arrazoizko balioa da hartzen den kreditu-arriskurik handiena —6(j) oharra—.

Hona hemen zorro honen banakapena, jaulkitzailearen arabera, abenduaren 31n:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Euskal Autonomia Erkidegoaren zorra (13. oharra)	57.975	52.954
Espainiaren zor publikoa	24.984	30.241
Zor elektrikoa amortizatzeko funtsa	8.175	11.686
Italiaren zor publikoa	7.906	-
Kutxabank	6.557	2.997
TDA 6, FTA zedulak	7.159	6.986
Finantza Egonkortzeko Funts Europarra	5.576	5.654
Frantziaren zor publikoa	5.001	4.997
Bestelako jaulkitzaileak (5 milioi eurotik beherakoak)	100.697	43.494
	224.030	159.009

Erakundeak analisia egin ondoren, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, Erakundearen jabetzako finantza-inbertsioetan ez dira narriadura-aztarnarik identifikatu. Hortaz, ez da hornidurarik egin 2022ko eta 2021eko ekitaldietan epemugara arte mantendutako inbertsioen zorroa narriatu izanagatik.

2022ko ekitaldiaren itxieran, 8.087 mila eurotan izan dira epigrafe honetan zorra adierazten duten baloreek sortutako interes esplizituak eta epemuga bete ez duten interesak (8.338 mila eurotan izan ziren horiek 2021eko ekitaldiaren itxieran).

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, urteko interes-tasa % 0,1tik % 7,75era bitartekoa da.

(f) Kobratzeko maileguak eta partidak

(i) Kreditu-erakundeetako gordailuak

Hona hemen abenduaren 31n balantzearen epigrafe hau osatzen duten saldoen xehetasuna (eurotan):

	2022		
	Kostua	Interesak	Epemuga
Errendimendu finkoko gordailuak	-	-	-

	2021		
	Kostua	Interesak	Epemuga
Errendimendu finkoko gordailuak	14.931	22	2022

2021eko ekitaldien itxieran, ez da izan epigrafe hau osatzen duten aktiboen kreditu-arriskuak sortutako narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketarik.

2021eko abenduaren 31n, urteko interes-tasa % 0,23tik % 0,50era bitartekoa da.

(ii) *Bestelako kredituak*

Hona hemen 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n balantzearen epigrafe honetan erregistratutako saldoen xehetasuna:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalen ondoriozko zordun	1.907	1.786
Likidatzeko dauden marjinen ondoriozko zordunak	437	206
Likidatzeko dauden eragiketak	116	31
	2.460	2.023

g) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

Honela dago osatuta epigrafea abenduaren 31n:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Kreditu-erakundeetako ageriko saldoa	36.660	98.020
Finantza-etorkizunekin egindako eragiketen bermeak	3.788	2.984
	40.448	101.004

2022ko abenduaren 31n, eurotan izendatutako kontu korronteen ordainketen interes-tasa % 0,34tik % 1,58era bitartekoa da interes-tasa (% 0 2021ean).

(h) Ordaintzeko zorrak eta partidak

Abenduaren 31n, epigrafe honen banakapena hau da:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Bestelako zorrak		
Hainbat hartzekodun	150	88
Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturen ondorioz hartzekodun	135	146
Gizarte Segurantzako erakundeak, hartzekodun	13	12
	298	246

Zorrak eta ordaintzeko partida guztiak epe laburrekoak direnez, haien kontabilitate-balioa beren balio nominalarekin bat dator, eta ez dago interes-tasetan aldakuntzak egoteko aukera handirik.

Erakundearen zor guztiak eurotan direnez, kanbio-tasaren arriskuak ez du eraginik.

(i) Tresna eratorriekin egindako eragiketak

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, finantza-etorkizunekin egindako eragiketen xehetasuna hau da:

2022 abenduaren 31n

Mota	Azpiko aktiboa	Epemuga	Kontratu kopurua	Merkatuko balioa (milaka eurotan)
Erosketa	EURO/DOLAR	2023ko martxoa	890	111.697
Erosketa	MINI S&P	2023ko martxoa	10	1.802
Salmenta	EUROSTOXX	2023ko martxoa	300	11.355
Salmenta	TOKYO 10YR GOV	2023ko martxoa	30	31.092

2021 abenduaren 31n

Mota	Azpiko aktiboa	Epemuga	Kontratu kopurua	Merkatuko balioa (milaka eurotan)
Erosketa	EURO/DOLAR	2022ko martxoa	300	37.554
Erosketa	EURO/GBP	2022ko martxoa	54	6.762
Erosketa	MINI S&P	2022ko martxoa	8	1.672
Salmenta	EURO BUND	2022ko martxoa	500	85.685
Salmenta	EUROSTOXX	2022ko martxoa	230	9.861
Salmenta	TOKYO 10YR GOV	2022ko martxoa	30	34.721

Finantza-eratorri horiek egunero likidatzen dira EUREX, CME edo TSE merkatu antolatuetan.

2022ko abenduaren 31n, eratutako bermeak eta irekitako posizioengatik likidatzeko zain dauden zor-marjinak 3.788 eta 437 mila eurokoak dira, hurrenez hurren (2021eko abenduaren 31n, 2.984 eta 206 mila euroak, hurrenez hurren), eta balantzearen "Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak" idazpuruan "Kobratzeko maileguak eta partidak" epigrafeetan aurkezten dira.

(j) Finantza-aktiboen eta -pasiboen arrazoizko balioa

Jarraian, inbertsio-zorroaren epemugako arrazoizko balioa alderatzen dugu liburuetan dagokion balioarekin, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n:

2022 abenduaren 31n

	Milaka eurotan		
	Arrazoizko balioa	Liburuetako balioa	Gainbalioa (Minusbalioa)
Epemugara arte mantendutako inbertsioak	214.673	224.030	(9.357)

2021 abenduaren 31n

	Milaka eurotan		
	Arrazoizko balioa	Liburuetako balioa	Gainbalioa (Minusbalioa)
Epemugara arte mantendutako inbertsioak	175.747	159.009	16.738

Erakundearen finantza-aktiboak beren arrazoizko balioan daude erregistratuta balantzean, honako hauek izan ezik: eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak, kobratzeko maileguak eta partidak, eta mugaegunera arte mantendutako inbertsioak.

Arrazoizko balioa lortzeko, merkatu aktiboan kotizatutako prezioak hartu dira kasu guztietan.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n dauden gainerako finantza-aktibo eta -pasiboei dagokienez, uste da ez dagoela alde handirik liburuetako balioaren eta arrazoizko balioaren artean.

(k) Finantza-tresnetatik datorren arriskuaren izaerari eta mailari buruzko informazioa

BGAE baten jarduerek zenbait finantza-arrisku dituzte; hots: merkatuko arriskua (interes-tasaren arriskua, prezio-arriskua eta kanbio-tasaren arriskua), kreditu-arriskua eta likidezia-arriskua.

Erakundearen finantza-arriskuaren kudeaketak helburu du interes-tasetako, prezioetako eta kanbio-tasetako aldakuntzen pean egoteko arriskua eta, baita ere, kreditu- eta likidezia-arriskuak kontrolpean izateko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea. Ildo horretatik, 92/2007 Dekretuak, maiatzaren 29koak, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituenak, arauzko zenbait koefiziente ezartzen ditu. Koefiziente horiek aipatutako arriskua mugatzen dute eta Erakundeak kontrolatzen ditu.

92/2007 Dekretuko 4.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, Erakundeak inbertsio-printzipioen adierazpena (IPA) du, eta Erakundeak zein aktibotan inbertitzen duen azaltzen da bertan, baita haiek kudeatzeko zein teknika erabiltzen dituen ere.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Urteko kontuen memoria

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

Jarraian, arriskua kudeatzeko Erakundeak gauzatutako politika eta prozeduren laburpena jasotzen da:

- Merkatuko arriskua

Errenta aldakorrean inbertitzeak berekin dakar Erakundearen errentagarritasuna eraginpean egotea hark inbertitzen duen merkatuen hegakortasuna dela-eta. Beraz, merkatuko arrisku handia du horrek.

Interes-tasen bilakaeraren arabera merkatuko balioan gorabeherak dituzten errenta finkoko aktiboetan inbertitzen du Erakundeak. Merkatuko prezioan izateko diren aldakuntzen sentikortasunak eragin txikia dute epe laburreko aktiboetan, eta handia epe luzeko aktiboetan. Jaulkitzaile pribatuen errenta finkoko jaulkipenek, oro har, jaulkitzaile publikoenek baino kreditu-arrisku handiagoa dute, eta, beraz, mugatu egiten da errenta finkoko jaulkitzaileen gutxieneko kreditu-kalifikazioa. Jaulkipenen bat ez bada kalifikatu, jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioa hartuko da kontuan.

Gainera, Erakundeak kapitalizazio baxuko baloreetan inberti dezake, eta horrek likidezia ken diezaieke inbertsio jakin batzuei. Kotizatu gabeko aktiboetan egiten diren inbertsioek ere ken diezaiekete likidezia inbertsio jakin batzuei, eta horrek aktiboaren balioa zenbatestean arriskua dakar, ez baitu merkatuak zuzenean zehazten.

Euroaz bestelako dibisetan izendatutako aktiboetan inbertitzeak kanbio-tasaren gorabeheren ondoriozkoa arriskua dakar berekin.

Tresna eratorrietan inbertitzeak eskurako inbertsioak baino arrisku gehiago ditu; izan ere, palanka-efektu bat dakar, eta, horren ondorioz, azpiko prezioaren aldaketek bereziki eragiten diete inbertsio horiei.

Merkatu antolatuetan kontratatu ez diren tresna eratorrietan inbertitzeak arrisku gehigarriak ditu; adibidez, aurkako alderdiak ez betetzea bere betebeharra, ez baitago konpentsazio-ganberarik aldeen artean, eragiketak ongi amaituko direla bermatzeko.

Hautabidezko inbertsioek ere arrisku gehigarriak dituzte; besteak beste, hauek: prezioa eratzerakoan gardentasunik ez egoteko arriskua, likidezia-arriskua, merkatuko arrisku gehigarria palanka-efektua egoteko aukeragatik, erregulazioak dakarren arriskua, eragiketa-arriskua, balorazio-arriskua eta iruzur-arriskua (inbertitzeko aukeratu litezkeen inbertsio kolektiboko erakundeen kontrol-sistema ahulen ondorioz aktiboak osteko arriskuagatik).

Interes-tasaren arriskua

Interes-tasaren arriskua honako hau da: Erakundeak posizioei eusteko erabiltzen dituen dibisen interes-tasetan aldakuntzak egotearen ondorioz galerak izateko arriskua. Horren barruan bereiz daitezke norabide-arriskua (lekualdaketa paraleloa) eta tasa-kurbaren arriskua (aldaketak maldan eta/edo forman).

Erakundeak arrisku hori du, zor-tresna publiko nahiz pribatuetan, finantza-erakundeetan eratutako eperako gordailuetan eta merkatu monetarioko tresnetan inbertitzearen ondorioz. Tasa aldakorretako jaulkipenen ondorioz, diru-fluxuen interes-tasaren arriskuak eragina du Erakundearengan. Interes-tasa finkoko jaulkipenen ondorioz, berriz, arrazoizko balioaren gaineko interes-tasen arriskuak eragiten dio.

Prezio-arriskua

Prezio-arriskutzat honako hau definitzen da: akzio edo indizeen prezioan izandako aurkako mugimenduen aurrean errenta aldakorrean egon daitezkeen galerak.

Prezio-arriskutzat honako hauek ere uler daitezke: akzioen prezioen hegakortasun-aldaketak, akzioen prezioen arteko harreman-aldaketak, eta akzioen eta bonuen arteko errentagarritasun-diferentzialaren aldaketak.

Erakundeak prezio-arriskuaren eraginpean dago, zorroan dituen kapital-balio kotizatuetan egindako inbertsioengatik.

Erakundearen Zuzendaritza hilero biltzen da, zorroaren errendimendua eta inbertsio-ildoak analizatzen ditu, eta Gobernu Batzordeari horien berri ematen dizkio.

Erakundeak aldian-aldian ebaluatzen ditu aktibo eta pasiboen proiekzioak, baita kontratuei esleitutako zorroen errentagarritasuna zein den eta hitzemandako interes-tasetarako nahikoa ote den ere.

Kanbio-tasaren arriskua

Kanbio-tasaren arriskua honako hau da: funtzionalaz bestelako dibisetan izendatutako posizioen merkatuko balioan aldaketak egoteko arriskua, kanbio-tasetan gertatzen diren aldaketen ondorioz.

Arrisku hori neurtzen da dibisa bakoitzean mantendutako posizio garbiaren arabera eta dibisen kanbio-tasaren hegazkortasuna kontuan izanda.

Erakundeak merkatu nazionaletan eta nazioartekoetan inbertitzen du, eta inbertsio gehienak eurogunean egiten ditu.

Erakundearen inbertsio-zorroa, nagusiki, eurotan izendatuta dago. Nolanahi ere, Erakundeak ezin izango du bere ondarearen % 15 baino gehiago jarri euroaz bestelako dibisen arriskuaren eraginpean. Nazioarteko merkatuetan egiten diren errenta aldakorreko nahiz errenta finkoko inbertsioekin lotutako kanbio-tasaren arriskua aktiboki kudeatuko da, eta, beharrezkoa bada, oso-osorik estali ahal izango da.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n Erakundeak dibisetan izendatutako aktiboetan duen inbertsioa 4(f) oharrean adierazita dago.

- Kreditu-arriskua

Kreditu-arriskua honako hau da: aurkako alderdiak Erakundeari zor dizkion ordainketa batzuk edo guztiak ez egiteagatik edo hitzartutako epeetatik kanpo egiteagatik galerak izateko arriskua.

2012ko martxoaren 14ko bilkuran, Erakundeko Gobernu Batzordeak aldaketa batzuk egin zituen inbertsio-printzipioen adierazpenean. 2022ko martxoaren 17ko eguneratzearen ondoren indarrean jarraitzen duen aldaketa horren indarrez, BBB+, BBB edo BBB- ratinga duten errenta finkoko jaulkipenen % 40ko gehieneko muga ezabatu zen, BBB- gutxieneko ratinga duten era horretako jaulkipenen ehunekoa minimoa gutxitu zen (% 95etik % 75era) eta BBBko inbertsio-zorroan errenta finkoko aktiboen batez besteko gutxieneko ratinga finkatu zen.

Beraz, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, errenta finkoko inbertsioen %70ek Standard and Poorsen BBB- ratinga izango dute gutxienez, edo nazioarteko beste bi kalifikazio-agentzia nagusiek (Fitch edo Moody's) emandako baliokidea. Jaulkipenen bat ez bada kalifikatu, jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioa hartuko da kontuan. Horrez gain, OTC deribatuak eta gordailuak kontratatzerakoan, aurkako alderdien kreditu-kalifikaziorako ere hartuko dira kontuan muga horiek. Beraz, jaulkitzaileentzat eta aurkako alderdientzat batera beteko dira aipatutako eragiketetan. Erakundearen inbertsio-zorroko errenta finkoko aktiboek batez beste izan behar duten gutxieneko ratinga, arriskuak kontrolatzeko ezarrita dauden prozeduren arabera kalkulatuta, BBB izango da.

Inbertsioei lotutako kreditu-arriskua ebaluatzeko, Erakundeak zorroaren inbentario bat egin du, kalifikazio-agentzia nagusiek jaulkitzaileen arabera eragiketa bakoitzerako emandako ratingekin. Inbentarioa automatikoki eguneratzen da, eta horrek zorroko aktiboen kreditu-arriskua une oro analizatzeko eta kontrolatzeko aukera ematen du.

2022ko eta 2021eko ekitaldiaren itxieran, rating hauek dituzte zorra adierazten duten baloreek, tresna hibridoek eta data horretan gordailuak dituzten kreditu-erakundeek:

- Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktiboak – Zor-tresnak

	Milaka eurotan			
	2022	%	2021	%
AAA ratinga	10.964	4%	24.737	9%
AA ratinga	12.838	4%	36.124	13%
A ratinga	53.832	17%	61.147	23%
BBB ratinga	146.923	46%	117.624	44%
BB ratinga	57.786	18%	20.550	8%
B ratinga	13.556	4%	3.007	1%
CCC ratinga	7.367	2%	-	-%
Esleitu gabe	16.549	5%	6.581	2%
	319.815	100%	269.770	100%

- Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktiboak – Tresnak hibridoak

	Milaka eurotan			
	2022	%	2021	%
AA ratinga	-	-%	3.044	10%
A ratinga	26.836	100%	27.990	90%
	26.836	100%	31.034	100%

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

- Epemugara arte mantendutako inbertsioak

	Milaka eurotan			
	2022	%	2021	%
AAA ratinga	5.576	2%	-	-
AA ratinga	87.354	39%	88.306	56%
A ratinga	62.231	28%	46.062	29%
BBB ratinga	42.284	19%	6.050	4%
BB ratinga	1.874	1%	3.351	2%
Esleitu gabe	24.711	11%	15.240	9%
	224.030	100%	159.009	100%

- Kreditu-erakundeetako gordailuak

	Milaka eurotan			
	2022	%	2021	%
A ratinga	-	-%	14.953	100%
	-	-%	14.953	100%

- Likidezia-arriskua

Bi likidezia-arrisku mota bereiz ditzakegu:

Likidezia-arriskua diruzaintzako aurreikuspenetan

Kutxako fluxuen egitura desegokiaren ondorioz ordaintzeko obligazioei aurre egin ezin izatearen arriskua da.

Epe laburrera, Erakundeak likidezia-eskariak izan ditzake, prestazioak ordaintzeko edo intsuldaketak egiteko atera behar den eskudirua dela-eta.

Ikuspegi horretatik, likidezia-muga batzuk ezarri dira (egindako ekarpenen gaineko ehunekoa) epe laburrerako diruzaintza-plan baten barruan, eta haien betetze-mailaren jarraipen sistematikoa egiten da. Muga horiek epe laburrera kapitala ateratzeko konpromisoak aise betetzen dituzte. Gainera, diruzaintza-plan hori sistematikoki eguneratzen da egunero, eta une oro epe laburrerako/ertainerako likidezia estrukturalaren aurreikusteko moduko bilakaerari buruzko informazio eguneratua edukitzeko aukera ematen du. Hartara, inbertitzeko baliabideen etorkizuneko premiak aurreikus daitezke, eta finantzaketa-mekanismo egokiak ezarri.

Merkatuko likideziaren arriskua

Merkatuko likideziaren arriskua honako hau da: Erakundeak posizio bat behar bezala desegiteko gai ez izatea, merkatuko prezioan eta eragiketaren kostuan aldaketarik eragin gabe.

Likidezia-arriskua produktu edo dibisa jakin batzuk kontzentratzearen eta merkatuen ezegonkortasunaren araberakoa da.

Arriskua ebaluatzeko, alderdi hauek hartzen dira kontuan: merkatuen arteko harremana, merkatu bakoitzaren sakonera (adibidez, maiz kotizatzen ez den produktu bat edukitzeak zailtasunak eragin ditzake hura gauzatzeko), epemuga bete gabeko produktuen epea eta beste faktore batzuk. Tresna jakin batean bolumen handiko eragiketa bat egiteak tresnaren merkatuko prezioan aurreikusi ezineko eragina izateko aukerarekin ere lotzen da arriskua.

Likidezia txikiko merkatuetan, erosteko/saltzeko marjina handia izan ohi da, eta horrek kostua handitzen du.

Horrekin lotutako fenomeno bat da bat-batean eta ustekabean likidezia gutxitzeko arriskua, baita normalean likidezia duten merkatuetan ere, prezio-mugimendu handiak egon direlako edo hegakortasunean jauziak egon direlako.

Merkatu-arriskua kontrolatzeko, Erakundeak dibertsifikatu egin behar ditu inbertitzeko erabiltzen dituen aktiboak, edota inbertsio-zorroaren guztizko arriskua monitorizatzen duten tresnak erabili behar ditu. Merkatuko arriskuaren eraginpean egoteari eta errenta aldakorraren aurkako alderdiari dagokienez, Erakundeak zorroaren inbentario bat egin du denbora errealean eguneratuta (Bloomberg eta kalkulu-orriak), eta, horren bidez, egunero jarraitzen eta kontrolatzen da bai zorroaren pisua, bai guztizko aktiboaren gainean duen hegakortasuna, inbertsio-printzipioen adierazpenean ezarritako ehunekoak eta mugak betetzeko.

Erakundeko Barne Kontrolerako Sailak IPAn finkatutako inbertsio-politika betetzen dela egiaztatzen du. Betetzen ez bada, Erakundeak ahalik eta lasterren erregularizatuko du egoera, eta zuzendari nagusiak Gobernu Batzordearen lehenengo bileran horren berri emango du, desbideratzeak % 5ean gainditzen badu berorren muga.

(7) Ondare garbia

(a) Funts propioak

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, funts mutualak (50 mila euro) eta erreserbak osatzen dituzte Erakundearen funts propioak. Eusko Jaurlaritzak, bazkide sustatzaile den aldetik, Erakundea eratzeko ekarpen bat egin zuen, eta ekarpen horren zenbatekoa da “funts mutuala”, aurreko ekitaldietako emaitzaren banaketarekin batera. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei dagokienez indarrean dagoen araudiak ezarritako gutxieneko zenbatekoa estaltzeko egindako ekarpena da.

Borondatezko erreserbak Erakundeagatik libreki eratutakoak dira.

(b) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Epigrafe honen baitan sartzen da "Erabiltzeko eskubidea", Erakundearen egoitza soziala diren lokalei dagokiena. Lokal horiek doan laga zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak.

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, "Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak" epigrafean izandako mugimenduaren xehetasuna hau da:

	Milaka eurotan
2020ko abenduaren 31ko saldoa	324
BGAE-en aurreikuspen-planetako jarduerei lotu gabeko kontuari egoztea — 6(b) oharra—.	(10)
2021eko abenduaren 31ko saldoa	314
BGAE-en aurreikuspen-planetako jarduerei lotu gabeko kontuari egoztea — 6(b) oharra—.	(9)
2022ko abenduaren 31ko saldoa	305

(8) Hornidura teknikoak

Hornidura teknikoak "Hornidura teknikoak – Gizarte-aurreikuspeneko jarduerako eragiketen ondoriozko hornidurak" epigrafea honela dago osatuta abenduaren 31n:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Ekarpen zehaztuko aurreikuspen-planei lotutako hornidurak, bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duenean	1.050.568	977.504

"Ekarpen zehaztuko aurreikuspen-planei lotutako hornidurak, bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duenean" kapituluko saldoak mugimendu hau izan du 2022ko eta 2021eko ekitaldietan:

	Milaka eurotan
2020ko abenduaren 31ko saldoa	823.626
Bestelako hornidura teknikoen aldakuntza, berrasegurua kenduta	153.878
2021eko abenduaren 31ko saldoa	977.504
Bestelako hornidura teknikoen aldakuntza, berrasegurua kenduta	73.064
2022ko abenduaren 31ko saldoa	1.050.568

"Hornidura teknikoak – Ekarpen zehaztuko aurreikuspen-planei lotutako hornidurak, bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duenean" kapituluaren saldoak osatzen ditu bazkideek eta onuradunek 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n dituzten eskubideak.

Hauek dira Erakundeko bazkideen eta onuradunen ondareari buruzko datu nagusiak abenduaren 31n:

	2022	2021
Partaidetza kopurua	54.281.317,99	49.734.753,96
Partaidetzaren balio unitarioa (eurotan)	19,354142	19,654353
Errentagarritasun urtekotua	(1,53%)	7,78%
Bazkide osoen kopurua	120.148	115.566

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

(9) Egoera fiskala

Indarrean dagoen legeriaren arabera, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek zero zerga-tasa dute sozietateen gaineko zergan. Horren ondorioz, erakunde horiek eskubidea dute jatorrian atxikipen bakarrekoak diren finantza-aktiboen etekin inplizituei egindako atxikipenak itzul diezazkieten. Hala ere, bete beharrekoak dituzte sozietateen gaineko zergak erregimen orokorraren pean dauden subjektu pasiboei eskatzen dizkien eginbide formalak.

Indarrean den legeriak ezarritakoaren arabera, ezin da esan zergak behin betiko likidatuta daudenik, harik eta agintari fiskalek aurkeztutako aitorpenak ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea igaro arte. 2022ko abenduaren 31n, agintaritza fiskalak ikuskatzeko irekita ditu Erakundeari azkeneko lau ekitaldietatik aplikagarri zaizkion zerga nagusiak. Ikuskapena eginez gero, Erakundearen administratzaileek ez dute uste garrantzizko pasiborik sortuko denik.

(10) Sarrerak eta gastuak

(a) Gastuen sailkapena xedearen arabera

Martxoaren 16ko 86/2010 Dekretuak ezarritakoaren arabera, Erakundeak banatu egin ditu hasieran izaeraren arabera sailkatutako gastuak, duten funtzioa dela-eta xedearen arabera birsailkatu behar kasuetan. Birsailkapen horren ondorioetarako, honako hau kontuan hartu behar da:

- Prestazioei egoztekoak zaizkien gastuetan sartzen dira, batez ere: prestazioak kudeatzen diharduten langileen gastuak eta jarduera horri lotutako ibilgetuaren amortizazioak, prestazioak kudeatzeko ordaindutako komisioak eta haien izapideak egiteko beharrezkoak diren zerbitzuengatik egindako gastuak.

- Administrazio-gastuetan sartzen dira, batez ere: kuotei lotutako auzietako zerbitzuen gastuak, kuotak kobratzeko kudeaketaren gastuak, lagatako berraseguruarenak, eta, bereziki, funtzio horietan aritzen diren langileen gastuak eta funtzio horiei lotutako ibilgetuaren amortizazioak.

- Inbertsioei egoztekoak zaizkien gastuetan inbertsioen kudeaketa-gastuak sartzen dira nagusiki, barnekoak nahiz kanpokoak, eta azken horien barruan daude sortutako zerbitzu-sariak, komisioak eta artekari-sariak, funtzio horietan diharduten langileen gastuak eta amortizazioetarako zuzkidurak.

- Bestelako gastu teknikoak dira, gizarte-aurreikuspenari lotutako kontukoak izanik, ezarritako irizpidea beteta aurreko xedeetako bati egotzi ezin zaizkionak; batik bat, zuzendaritza orokorreko gastuak.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, Erakundeak xedearen arabera birsailkatu ditu administrazio-gastuak, martxoaren 16ko 86/2010 Dekretuko xedapenak betetzeko, eta galdu-irabazien kontuko epigrafe hauetan sailkatu ditu:

2022ko ekitaldia	Prestazioei egoztekoak zaizkien gastuak	Administrazio-gastuak	Ibilgetu materiala eta inbertsioak kudeatzeko gastuak	Bestelako gastu teknikoak	Guztira
Administrazio-gastuak	55	863	3.023	158	4.099

2021eko ekitaldia	Prestazioei egoztekoak zaizkien gastuak	Administrazio-gastuak	Ibilgetu materiala eta inbertsioak kudeatzeko gastuak	Bestelako gastu teknikoak	Guztira
Administrazio-gastuak	53	852	2.510	154	3.569

Era berean, 2022ko ekitaldian balore higigarriak salerosteko bitartekaritza-gastuak 224 mila euro izan dira (128 mila euro izan ziren 2021eko ekitaldian).

(b) Bestelako hornidura teknikoen aldakuntza, berrasegurua kenduta

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietako galdu-irabazien kontuko "I.6 Bestelako hornidura teknikoen aldakuntza, berrasegurua kenduta" kapitulua honela dago osatuta:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Ekitaldiari egotzitako kuotak, berrasegurua kenduta	111.679	108.299
Prestazioek	(23.894)	(20.877)
Prestazioei egotzitako gastuak	(55)	(53)
Inbertsioen sarrera/(gastu) garbiak	(10.126)	70.541
Inbertsioei egotzitako gastuak	(3.023)	(2.510)
Bitartekaritza-gastuak	(224)	(128)
Ustiapen-gastu garbiak	(863)	(852)
Bestelako gastu teknikoak	(158)	(154)
Lotutako kontuaren emaitza	(272)	(388)
	73.064	153.878

(11) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. "Informatzeko betebeharra". Uztailaren 5eko 15/2010 Legea

Hona hemen Kontabilitate eta Kontu Ikuskapeneko Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko ebazpenean aipatzen den ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa:

	Egunak	
	2022	2021
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	1	1
Ordaindutako eragiketen ratioa	% 73	% 76
Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa	% 27	% 24
	Milaka eurotan	
Egindako ordainketak guztira	796	782
Egiteko dauden ordainketak guztira	298	246
Egindako ordainketak guztira ken 60 egun	581	594
Egindako ordainketen % ken 60 egun	% 73	% 76
Ordaindutako fakturen kopurua ken 60 egun	283	283
Ordaindutako fakturen % ken 60 egun guztizko kopuruaren gainean	% 73	% 76

(12) Gobernu Batzordeari eta Goi Zuzendaritzari zuzendutako ordainsariak eta bestelako prestazioak

Gobernu Batzordeko kideek ez dute kontzeptu batengatik ere ordainsaririk jaso 2022ko eta 2021eko ekitaldietan.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, ez dago metatutako obligaziorik pentsioen alorrean, Gobernu Batzordeko lehengo eta oraingo kideei dagokienez, gobernu-organo horretako kide izateagatik.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, ez zaie aurrerakinik edo krediturik eman Gobernu Batzordeko kideei.

Erakundeko Goi Zuzendaritzako kideek 131 mila euroko ordainsaria jaso dute guztira 2022ko ekitaldian (127 mila euro jaso zituzten ere 2021eko ekitaldian).

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

(13) Eragiketak lotutako aldeekin

2022ko eta 2021eko ekitaldietan ez da Erakundearen ohiko jardunbidetik kanpo transakziorik egin lotutako alderdiekin (bazkide babesleen kuotak kobratzea, eta bazkide eta onuradunei prestazioak ordaintzea). Halaber, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, Erakundeak zuzeneko inbertsioko saldo hauek zituen lotutako alderdiekin:

	2022	2021
Epemugara arte mantendutako inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoaren zorra —6(e) oharra—	57.975	52.954

(14) Bestelako informazioa

(a) Enplegatuen batez besteko kopurua eta karga sozialak

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, plantillako enplegatuen batez besteko kopurua, lanbide-kategorien arabera banakatuta, honako hau da:

	Enplegatuen batez besteko kopurua					
	2022			2021		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendariak	1	-	1	1	-	1
Teknikariak	4	-	4	4	-	4
Administrariak	1	5	6	1	4	5
	6	5	11	6	4	10

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, Zuzendaritza Kontseiluko kideen eta langileen banaketa, sexuaren arabera, honako hau da:

	2022		2021	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Gobernu Batzordea	10	6	10	6
Zuzendariak	1	-	1	-
Teknikariak	4	-	4	-
Administrariak	1	6	1	4
	16	12	16	10

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan, Erakundean ez da egon % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duen enplegaturik.

Era berean, abenduaren 31n, langile-gastuen banakapena hau da:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
Soldatak eta alokairuak	631	569
Karga sozialak	150	127
BGAEari egindako ekarpenak	19	16
	800	712

Erakundeak 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n duen langile-gastua xedearen arabera erregistratu da, Eusko Jaurlaritzaren 86/2010 Dekretuari jarraituz.

(b) Ikuskapen-ordainsariak

Sozietate kontu-ikuskariak Erakundearen 2022. ekitaldiko urteko kontuak ikuskatzeko zerbitzuengatik jasotako ordainsariak 25 mila euroko dira (23 mila euro 2021eko abenduaren 31n).

Era berean, 2022an eta 2021ean ez da zerbitzu-saririk sortu KPMGren sareko bestelako sozietateen aldetik.

(15) Araudia betetzea

(a) 92/2007 Dekretua, maiatzaren 29koa, BGAE-en jarduera jakin batzuk arautzeko dena

Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak helburu du arlo jakin batzuk garatu eta arautzea, eta BGAE-ek eta aurreikuspen-planek jarduera-esparru eraginkorragoa, fidagarriagoa eta zorrotzagoa eskaintzea, bazkide osoen eta prestazioen onuradunen mesedetan.

Aipatutako Dekretuaren bosgarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez, 92/2007 Dekretuaren 11. artikuluan finantza-inbertsioei buruz ezarritakoa 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera bete beharko da. Horrez gain, ezartzen du aktiboetan inbertitzerakoan segurtasun, errentagarritasun, likidezia, dibertsifikazio, sakabanatze, epe eta kongruentziari buruzko irizpide jakin batzuk bete beharko direla. Erakundeak 2010eko urtarrilaren 1ean hartu zituen aipatutako artikuluan ezarritako irizpide horiek.

Aipatutako Dekretuak inbertsioak baloratzeko arauetan eta kontabilitate-printzipioetan dituen eragin nagusiak Dekretuaren 11. artikuluan adierazita daude.

Erakundeak, bai 2022ko abenduaren 31n, bai urteko kontu hauek aurkezteko datan, aipatutako 11. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen ditu.

(b) 2009ko apirilaren 29ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2009ko apirilaren 29ko Aginduaren bidez, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren agindu jakin batzuk garatzen dira.

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

Hiru arlo nagusi hauetan ardazten da Agindua:

- BGAE-ek egin ditzaketen jarduerei esleitzen zaizkien eskubide eta betebeharrak behar bezala bereizita egotea.

- BGAE-en ohiko jardunbidean finantza-tresna jakin batzuk erabiltzeagatik arrisku handiagoa sortzen duten arloak garatzea.

- BGAE-en gardentasuna garatzea.

Erakundeak, bai 2022ko abenduaren 31n, bai urteko kontu hauek aurkezteko datan, bete egiten ditu 2009ko apirilaren 29ko Aginduan jasotako betebeharrak. 2022ko abenduaren 31n,

(16) Hornidura teknikoen estalduraren egoera-orria eta segurtasun-marjinaren egoera-orria

Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 10. artikuluaren arabera —Eusko Jaurlaritzaren urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren azken xedapenetako zortzigarrenak aldatzen du artikulu hori—: ekarpen zehaztuko gizarte-aurreikuspeneko planetarako gastu eta prestazio aurreikusien eta errealen arteko desbideratzea xurgatzeko segurtasun-marjinaren gutxieneko zenbatekoa % 0,125 izango da, plan horiei lotutako hornidura teknikoen gainean, bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duenean. Aipatzekoa da, urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera, segurtasun-marjina hori 2016tik aurrera gehienez hamar ekitalditan eratu daitekeela, dagokion zenbatekoaren urteko hamarreneko minimoaz.

Aipatutako araudiaren arabera, Erakundeak, ekitaldi ekonomiko bakoitzean, adierazitako segurtasun-marjina beteko duen hitzeman gabeko ondarea izan behar du.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, segurtasun-marjinaren egoera hau da:

	Milaka eurotan	
	2022	2021
	1.722	1.450
Erreserbak	1.450	1.062
Ekitaldiko emaitza	272	388
Ekarpen zehaztuko planen segurtasun-marjina (lotutako horniduren % 0,125) (*)	919	733
Eratutako segurtasun-marjina (**)	1.722	1.450
Segurtasun-marjina gehiegizkoa/(gutxiegizkoa)	803	717

(*) (*) Kontuan izanda 203/2015 Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritako 10 urteko aldi iragankorra.

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

(**) Ekitaldiaren emaitza barne hartzen du, 272 mila euroko balioaz (388 mila euro 2021ean), Gobernu Batzordeak proposatutako emaitzaren banaketaren arabera (3. oharra), Erakundearen Batzar Nagusiak onartu ondoren erreserbetara bideratzea espero dena.

(17) Itxieraren ondorengo gertaerak

Ekitaldia itxi ondoren, ez da urteko kontu hauetan aditzera emateko moduko gertaera nabarmenik izan.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Kudeaketa-txostena

2022eko ekitaldia

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

ERAKUNDEAREN EGOERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak 2004ko uztailaren 27an hartutako erabakiaren bidez eratu zen Itzarri Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea. Erabaki horrek bete egin zuen Mahai Orokorrean, maiatzaren 6ko bileran, gizarte-aurreikuspen osagarriaren inguruan hartutako konpromisoa, 2003ko eta 2004ko soldata-igoerak zirela eta.

Aipatutako erabakiaren indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala osatzen duten erakundeak Itzarri Enpleguko BGAEren bazkide babesleak dira. Horrekin, hitzematen dute haien soldata-masaren ehuneko bat, urte bakoitzean ezartzen denaren arabera, Erakundearentzako ekarpenak finantzatzeko erabiliko dutela.

2022ko ekitaldian, ekarpenak 105.713 mila euro izan dira guztira, eta 23.764 mila euroko prestazioak ordaindu dira: erretiroagatik 20.680 mila euro; ezintasunagatik 2.013 mila euro, heriotzagatik 944 mila euro eta iraupen luzeko langabeziagatik 127 mila euro.

2022ko abenduaren 31n, bazkide osoak 120.148 ziren. Horietatik 736 bazkide oso pasiboak ziren (372 gizonak eta 364 emakumeak).

BAZKIDEEN MUGIMENDUA 2022KO EKITALDIAN			
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
HASIERAN	**38.005**	**77.561**	**115.566**
ALTAK	1.909	4.890	**6.799**
BAJAK	922	1.295	**2.217**
AMAIERAN	**38.992**	**81.156**	**120.148**

2022ko abenduaren 31n, bazkideen eskubide kontsolidatuak **1.050.568 mila euroko** ziren, eta ekitaldian errentagarritasuna negatiboa lortu zen: **-% 1,527**.

Ondarea 54.281.317,985263 kontu-unitatek osatzen dute, eta bakoitzak 19,354142 euroko likidazio-balioa du.

ITZARRI ENPLEGUKO BGAE-AREN ERRENTAGARRITASUN HISTORIKOAK (*)

2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
-% 3,26	% 11,18	% 11,90	% 6,92	% 4,15	% 4,82	% 4,43	-% 2,03	% 7,03	% 1,41	% 7,78	-% 1,53

(*) Iraganeko errentagarritasunek ez dituzte bermatzen etorkizuneko errentagarritasunak

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Kudeaketa-txostena

2022eko ekitaldia

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

ESTATUTUEN ALDAKETAK

Erakundeak 2022ko maiatzaren 10ean egindako Batzar Orokorrean honako estatutu-aldaketa hauek onartu ziren:

- **26. artikulua**: Onuradunei dagokienez, hildako bazkide osoak halakotzat aukeratutako pertsonek pertsona fisikoak izan behar dutela zehazten da. Halaber, Itzarri Enpleguko BGAE testamentuan berariaz izendatzeari buruzko aipamena sartu da eta onuradunen lehentasuna garatu da, berariazko izendapenik ezean.

- **46. artikulua**: Erakundearen Batzar Orokorra modu presentzialean zein bitarteko telematikoen bidez egiteko aukera jasotzen da.

- **54. artikulua**: Adierazten da Erakundearen Batzar Orokorra erakundearen egoitza sozialean edo izendatzen den lekuan bilduko dela, modu presentzialean edo bitarteko telematikoen bidez.

FINANTZA-MERKATUEN 2022KO BILAKAERA

Ukrainako gerra, gas naturalaren hornidurarekin izandako arazoak eta horiek energia-sektorean izan duen inpaktua, Txinako "Zero Covid" politikak eta hornidura-kateetako estutasunak izan dira protagonista nagusiak 2022an zehar. Munduko bankuak azkarrago jokatzera behartu dituzten oso inflazio-tasa altuetan dago arrisku-faktore horien ondorioa. Zuzeneko eragin gisa, ziklo ekonomikoaren amaiera bizkortu da eta hazkundearen gaineko beheranzko arriskuak areagotu dira. Horren errealitatea 2023an agerian geratuko da.

Jardueraren dezelerazioa nabarmena izaten ari da aurreikuspen ekonomikoen eguneratzean ikusten ditugun beheranzko berrikuspenetan. Eurogunea izan da hazkunde-estimazioak gehien murriztu dituen eremu ekonomikoetako bat, Ukrainako gerrarekiko esposizio geopolitiko handiagoa duelako.

Azken ekintzek agerian utzi dute gatazka belikoaren iraunkortasun handiagoaren ideia. Nazioarteko komunitateak Errusiari egiten dion presioa areagotzen jarraitu du eta jarraituko du, helburu hartuta Kremlinek gerra finantzatzeko duen ahalmena ahultzea eta Errusiako elite politikoari kostu ekonomiko eta politiko argiak ezartzea. Hala ere, oztopo nagusia izan da, Europako agintarien aldetik, Errusiako energia-sektoreari zigorrak ezartzeko modua, jakinik 2019an Errusia izan zela EBko lehen hornitzailea energia-lehengaiei dagokienez, normaltasunezko urte batean.

Inflazioan zarata-iturri nagusia energia izan da. Horrek, lehenik eta behin, elikagaiak eraman ditu berekin, osagai energetiko handia baitute.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat hornidura kateetako tenkatzea izan zen, batez ere Txinaren politika iragarrezinengatik Covid-19aren kudeaketan. Gogoan izan behar dugu udaberrian konfinamendu zorrotza ezarri zela Txinako hainbat hiritan.

Europan, udatik urte amaiera aldera bitartean, EBZk 250 oinarrizko puntu gogortu ditu gordailu-erraztasuna, birfinantzaketa-eragiketa nagusietarako tasa eta kreditu-lerro marjinala. Banku zentralak adierazi zuenez, hazkundeek esanguratsuak izaten jarraituko dute, erritmo konstantean. Christine Lagardek argi utzi zuen datuak berrikusten jarraituko dutela inflazioaren aurkako borrokarekin jarraitzeko.

Erakundearen jarrera ulertzeko, makro koadroaren azken eguneraketari begiratu besterik ez zen egin behar, eta 2022an batez besteko inflazioa % 8,4ra iritsiko zela estimatu zen, 2023an % 6,3ra jaitsi aurretik. 2024rako % 3,4 eta 2025erako % 2,3 aurreikusi zen.

EBZren ekintza murriztaileen arabera, atzeraldian sartzeko arriskua areagotu egin da. Bankuaren proiekzioak berak bat datoz 2023 zail batekin. Urte honetan, eskariaren ahuleziak, familien konfiantzaren narriadurak eta ziurgabetasun politikoak pisu handia izango dute zenbait eremu ekonomikotan, hala nola Italian, Giorgia Meloni lehen ministro hautatu ondoren. EBZk ere apur bat behartuta jardun behar izan du, merkatuaren berezko arazoengatik berengatik, jakitun Erreserba Federalarekiko moneta-politikaren abiadura desberdinak, euroguneko aurreikuspenen okertze orokorrarekin batera, euroa narriatu duela, eta parekotasunaren azpitik eraman duela urtearen zati batean.

AEBri dagokionez, agintariek eskaria berrabiaraztean izan duten arrakasta zama bat izan da azkenean. Pandemian, gobernu amerikarraren politika fiskala oso eskuzabala izan zen eta etxeen kontsumoa eta finantzak bultzatu zituen, lan merkatuaren estutasunek soldata-presio handiagoak eragin dituzten ingurune batean.

Horren isla izan da ekainean inflazioa urte arteko % 9,1eko maximoetara iritsi izatea. Horretan, etxebizitzaren prezioek zerikusi handia izan zuten. Ondorioz, Erreserba Federalak interes-tasak igo zituen, eta urtea % 4,25 - % 4,5 tartean amaitu zuten; 2022aren hasieran, berriz, % 0 - % 0,25 artekoak ziren, eta atea irekita utzi du 2023an igoera berriak egiteko.

Petrolioaren merkatuan, Txinako eskariaren ahuleziak prezioak beherantz bultzatzen lagundu zuen. Brent-en kasuan, 139 $/upeleko urteko maximoetara iritsi ondoren, 2022a 85 $/upeleko mailan bukatu zuten, eta 2022aren hasieran, berriz, 78 $/upeleko mailan. Hori guztia, OPEP+-ek iragarri arren abenduaren 1etik aurrera bere eskaintza egunean 2 milioi upel murriztuko zuela.

Dibisen merkatuetan gauzarik nabarmenena izan zen dolarraren errebalorizazio handia dibisa nagusien aldean, 2022an bizitakoa bezalako zurrunbilo-garaietan babes-moneta gisa duen eginkizunagatik eta Fed-ek abian jarritako interes-tasen igoera handiagatik —beste banku zentral batzuena, esaterako EBZrena, baino handiagoa—. Dolarraren balioa euroaren aldean % 7 handitu zen. Hala, 1,14 $/€-tik 1,07 kotizatzera igaro zen. Finantza-merkatuetako asaldurarik handieneko unean, irailaren amaiera aldean, parekotasuna hautsi eta 0,95 $/€ pasatxoan trukatu zen, 2002tik ikusi ez zen mailan.

ERRENTA ALDAKORRA


Munduko burtsa-merkatu nagusiek beherakada handiekin itxi zuten 2022a, Ukrainako gerraren ziurgabetasunaren, inflazio-tasen igoeren eta banku zentralen tasa-igoeren azkartasunaren ondorioz.

Kontuan hartu behar da, orobat, zerga-politikak gutxiago hedatu zirela estimuluak kendu ahala. Hornidura-kateekin izandako arazo larriek, Estatu Batuetako lan-merkatuaren distortsioek eta energia-prezioen gorakadak arriskuak eragin dituzte merkatuan.

Bereziki sentikorrak izan dira Estatu Batuetako baloreak, batez ere interes-tasen igoerek eragin handiena izan duten profil teknologikoko enpresak, horien egungo balorazioaren zati handi bat etorkizuneko diru-sarreren aurreikuspenekin lotuta dagoelako. 2019tik 2021eko abendura bitartean, Nasdaq Composite % 137 errebalorizatu zen eta, 2022an, % 33 zuzendu zen. Bat-bateko geldialdi hori enpresa teknologiko handietan erreplikatu zen: Amazonek ia % 50 galdu du zuen, Alphabet-ek % 40 eta Microsoftek ia % 30. Guztien gainetik Meta (Facebook) zegoen, ia % 65 hondoratu baitzen, pandemiaren ondorengo kontsumo-ohituren aldaketen eta "metabertso"aren aldeko apustuaren ondorioz.

Europan, Stoxx 600 europarrak % 12,9 egin zuen behera. Espainiako Ibex 35en erresistentzia nabarmendu zen, % 5,56 baino ez baitzen jaitsi, neurri batean murrizketa txikiagoek eta turismoaren sektorearen susperraldiak berekin ekarritako eragin positiboagatik. Finantza- eta energia-sektorearen portaera ere nabarmendu zen.

Lehen deskribatutako inguruanean, **Itzarri Enpleguko BGAEk errenta aldakorraren ikuspegitik egindako kudeaketak -% 1,39**ko errentagarritasuna **lortu zuen** egindako inbertsioekin **2022an**, erreferentziazko indizearen **-% 2,45**aren aldean.



2022an errenta aldakorreko merkatuetan izandako gorabehera garrantzitsuen ondorioz, pisuaren kudeaketa ohi baino aktiboagoa egin genuen, baina horrek fruituak eman zituen, lagundu egin baitzuen gure zorroak portaera hobea izan zezan bere benchmarkaren aurrean.

2022an Europako haztapena handitu genuen (2021eko itxierako % 22,28tik 2022ko itxierako % 28,20ra), Estatu Batuen kaltetan (% 20,3tik % 15,83ra jaitsi zen).

Errenta aldakor globaleko inbertsioak ere % 12,97tik % 9,93ra jaitsi ziren. Espainian eta Japonian oso antzeko pisua izan genuen, eta gorabidean dauden herrialdeetan, berriz, pixka bat handitu genuen.

2022an berriro ere, Itzarrik eutsi egin zion Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen ekonomikorako "traktoretzat" jotzen diren euskal konpainien aldeko apustu estrategikoari. Ildo horretatik, zorroan ditugu Tubacex, CIE Automotive, Global Dominion, Gestamp, CAF, Faes, Arteche eta NBI Bearings. Urtean zehar, Gestamp, CAF eta Arteche-n dugun posizioa handitu dugu. Eta nabarmendu behar dugu Tubacexen portaera ona, % 33ko errebalorizazioarekin portaera onena izan zuen konpainietako bat izan baitzen hain urte gorabeheratsuan.

ERRENTA FINKOA

Errenta finkoari dagokionez, esan daiteke 2022. urte, negatiboa baino gehiago, negargarria izan duela. Ekitaldia historiako txarrentzat itxi zen (maila globalean datu agregatuak ematen direnetik behintzat). Ia aktibo batek ere ez zuen urtea eremu positiboan itxi, eta bonu subiranoek (hainbat zorro kontserbadoretan ohikoak) beren balioaren % 16 ere galdu dute. Gastu publiko handiak eta COVIDak sortutako hornidura-katearen arazoek agertoki ezin hobea sortu zuten inflazioa bat-batean azeleratzeko. Azelerazio hori 2021aren amaiera aldean jadanik kezka sortzen hasi zen eta ekitaldi honetan katalizatzaile berriek areagotu egin dute. Horien artean dago Ukrainako gerra eta, besteak beste, horrek gasaren eta elektrizitatearen prezioetan izan duen eragina. Banku zentralek prezioen igoerak geldiarazi behar izan dituzte tasa-igoera bortitz ugarirekin, eta horrek errenta finkoko merkatuak asko debaluatzea eta uzkurtzea ekarri du.

2022an gehien sufritu zuten errenta finkoko aktiboen artean nabarmentzen da gorabidean dauden herrialdeen zorra. Izan ere, ekitaldiaren lehen erdian izandako beherakaden buru izan zen, eta % 23ra iritsi zen ekainaren amaierara arte, Errusiako gerraren eta Covidarekin lotutako Txinako konfinamenduen eraginez. Urtearen bigarren erdian, inflazioaren goranzko ustekabeek eta interes-tasen igoerak Europako zor subiranoa ahultzen jarraitu zuten. Izan ere, zor subiranoak euroguneko herrialdeetan urteko % 17-18 bitarteko galerak izan zituzten. Era berean, nabarmendu egin zen Liz Truss lehen ministro ohiaren taldeak aurkeztu zituen neurri fiskalek eragindako zurrunbiloen ondorioz zor britainiarrak izandako % 23ko beherakada.

Jaitsiera txikienak izan dituzten errenta finkoko aktiboen artean, berriz, Japoniakoa dago (-% 4,7), oraingoz gai baita bere diru-politika ultrahedakorrei eta inflazioari lotutako bonuei eusteko (-% 9,2). Ondoren, gertu, arrisku-prima handiena duten aktiboak daude, hala nola Europako errendimendu handiko bonuak (-% 10,5) edo finantza-bonuak (-% 11).

Azkenik, aipatu behar da Itzarrik jarraitzen duen benchmarkak errentagarritasun negatiboa lortu duela (**-% 17,0**), zor subiranoan haztapen handia duelako.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Kudeaketa-txostena

2022eko ekitaldia


(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

Hala ere, Itzarrik azken urteotan izan duen posizio estrategikoak fruituak eman ditu 2022an, eta errenta finkoko zorroaren urteko errentagarritasun osoa **-% 4,10**ekoa izan da. Horrek esan nahi du zorroaren erreferentziazko indizearen aldean **+% 12,9** irabazi duela. Batez ere, honako hauen bidez lortu da hori:

- Benchmarkarekiko infrahaztapena iraupenean, honako hauei esker: (i) epemugan baloratutako gure bonu-zorroaren prezioen egonkortasuna (ekitaldiaren hasieran errenta finkoko zorroaren % 20 muga-egunean baloratuta zegoen); eta (ii) 20 milioi eurotik gorako gainbalioak sortu dizkiguten Alemaniako zorraren estalduretan posizio sendoa izatea.

- Era berean, infrahaztapena zor subiranoan benchmarkarekiko, eta inflazioari lotutako bonuen pisu handiagoarekin kategoria horren barruan.

Jarraian datorren grafikoan, Itzarriren zorroaren eta errenta finkoko benchmarkaren bilakaera ikus daiteke:



Honako hauetan oinarritu da zorroaren kudeaketa ekitaldian:

- Zorroaren iraupena pixkanaka luzatzea 0,5 urtetik 2,25 urtera, Alemaniako zorraren estaldura-posizioak deseginda eta epe luzeko zorrean posizioak 5-10 urtera luzatuta. Batez ere urteko azken hiruhilekoan, kredituko eta tasako spreadak zabaltzeko abagunea baliatuz, muga-egunean baloratutako bonuen zorroa handitu egin da: 130 milioi eurotik (errenta finkoko zorroaren % 20) 200 milioi eurora (errenta finkoko zorroaren % 30).


(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

- Zor subiranoarekiko esposizioaren murrizketa progresiboa, % 53,6tik 2021aren amaieran % 38,5era 2022aren amaieran. Era berean, inflazioari lotutako bonuen esposizioa ere pixkanaka murriztu da, epe ertain eta luzerako inflazio-itxaropenek bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan goia jo zutela iritzita.

- Eta errendimendu handiko bonuetarako joera txikia duten finantzarioekiko eta korporatiboekiko esposizioa handitzea, spreaden kredituak zabaltzetik onura ateratzeko.

Funtsetan egindako inbertsioa oso selektiboa izan da, eta errenta finkoko eta errenta aldakorreko merkatuekiko deskorrelazio argia eskaintzen duten produktuetan bakarrik inbertitu da.

BONU-ZORROAREN BANAKAPENA AKTIBO MOTAREN ARABERA



Zorroaren batez besteko ratinga BBB+ batera igaro da, eta nota bat murriztu da iazkoarekin alderatuta. Errendimendu handiko bonuen eta ordaindukoen pisua % 24ra arte handitu da 2021eko itxierako % 17tik.

Spreaden zabaltze orokorrari eta zorroaren aldaketei esker, zorroaren batez besteko errentagarritasuna % 4,2 izatera igaro da, 2021aren amaieran % 1,6tik eta urtebete lehenago % 1,9tik nabarmen igota. Zorroaren muga-eguneko barne-errentagarritasuneko tasak ere % 3,50eraino egin du gora urtebete lehenagoko % 3,22arekiko.

Eskualde geografikoen arabera, ekitaldian zehar zorroaren kontzentrazioa nabarmen murriztu da Espainian eta Italian, % 65etik % 56ra. Ondoren, Estatu Batuak (% 7,9) eta Frantzia (% 7,8) daude. Jaulkitzaileei dagokienez, Espainiako Erresuma (% 10,7), Eusko Jaurlaritza (% 10,2) eta Italiako Gobernua (% 7,1) mantentzen dira zorroko hiru jaulkitzaile nagusi gisa.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Kudeaketa-txostena


2022eko ekitaldia

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

INBERTSIOEI BURUZKO INFORMAZIOA

Jarraian, 2022ko abenduaren 31n Erakundeak dituen finantza-aktiboen banakapena agertzen da:

FINANTZA-AKTIBOAK	Milaka eurotan	
Eskudirua	40.448	**% 3,84**
Finantza-tresna hibridoak	26.836	**% 2,55**
Ondare-tresnak	439.034	**% 41,71**
Zorra adierazten duten baloreak	319.815	**% 30,38**
Kobratzeko maileguak eta partidak	2.460	**% 0,23**
Epemugarako inbertsio-zorroa	224.030	**% 21,28**
GUZTIRA	**1.052.623**	




FINANTZA-AKTIBOEN XEHETASUNA	Milaka eurotan	
Kapitaleko inbertsioak	113.022	**% 10,74**
Inbertsio-funtsak	186.653	**% 17,73**
Arrisku-kapitala	139.359	**% 13,24**
Errenta finkoa	543.845	**% 51,67**
Tresna hibridoak	26.836	**% 2,55**
Bestelako kredituak	2.460	**% 0,23**
Diruzaintza	40.448	**% 3,84**
GUZTIRA	**1.052.623**	

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea


Kudeaketa-txostena

2022eko ekitaldia

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)



Aktiboen banaketa geografikoari dagokionez, jarraian datorren taulan, finantza-aktiboen osotasunaren eta ondare-tresnen arabera banakatzen da. Inbertsio osoa Itzarri Enpleguko BGAEk zuzenean kudeatua da.



(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

2022ko abenduaren 31n, ondarearen % 13,84 EAEn inbertituta dago, Kutxabankeko kontu korronteko saldoak kontuan hartuta:

INBERTSIOA EAE-N	Milaka eurotan	
EUSKO JAURLARITZA	57.975	% 39,87
TUBACEX	8.984	% 6,18
BBVA	8.447	% 5,81
ZEHARKAKO INBERTSIOAK	7.473	% 5,14
KUTXABANK	6.557	% 4,51
CIE AUTOMOTIVE	5.327	% 3,66
IBERDROLA	5.308	% 3,65
GLOBAL DOMINION ACCESS SA	4.198	% 2,89
GESTAMP	4.043	% 2,78
ARTECHE	3.732	% 2,57
STARTUPAK	2.849	% 1,96
CAF	2.067	% 1,42
LABORAL KUTXA	1.510	% 1,04
ORMAZABAL	1.488	% 1,02
FAES FARMA	1.478	% 1,02
NORTEGAS	1.463	% 1,01
ULMA TALDEA	1.298	% 0,89
SIDENOR	994	% 0,68
ALUDIUM	692	% 0,48
NBI BEARINGS EUROPE SA	567	% 0,39
NEINOR HOMES	450	% 0,31
KUTXABANK SALDOAK K. K.	18.514	% 12,73
GUZTIRA	**145.414**	**% 100,00**

Erakundearen finantza-aktibo gehienak bai hasierako unean, bai ondorengo balorazioetan baloratzen dira, haien arrazoizko balioaren arabera; eta balio horietan izaten diren aldaketak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan egozten dira.

2022ko ekitaldiaren itxieran, Itzarri Enpleguko BGAEak epemugara arte mantendutako inbertsioetan 224.030 mila euro ditu —ondarearen % 21,32—. Zenbateko hori, funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoaren zorrari dagokio —57.975 mila euro—. Finantza-aktibo horiek arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira hasieran, eta, ondoren, kostu amortizatuaren arabera, sortutako interesak dagokien interes-tasa efektiboaren arabera aitortuta.

2022ko abenduaren 31n, epemugarako zorroaren ezkutuko minusbalioak 9.357 mila euro dira.

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

2022ko ekitaldiko balore higigarrien salerosketan izandako bitartekotza-gastuak 224 mila euro izan dira; hau da, % 0,021 BGAEaren ondarearen gainean. Balio horien zorroaren errotazio-ratioa % 53,47koa izan da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak zehaztutako baldintzetan.

ADMINISTRAZIO-GASTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

2022ko ekitaldiko administrazio-gastuak 4.099 mila euro izan dira, eta bazkide osoek bere gain hartutako gastuen portzentajea % 0,44, ekitaldiko batez besteko ondarearen gainean. Zuzeneko administrazio-gastuak edo egitura-gastuak izenekoak (deskontatuta barneko kudeaketa-komisioak eta inbertsio kolektiboko erakundeetan edo arrisku-kapitaleko erakundeetan egindako inbertsioen gordailuak, 1.608 mila euroko izan dira; hau da, % 0,15, 2022ko abenduaren 31ko ondarearen gainean.

2022KO EKITALDIKO ALDERDI ESANGURATSUAK

Azpimarratu beharreko alderdietako bat da 2022ak, errentagarritasunari dagokionez hain urte desberdina eta atsekabegarria izanik, beste aurrerapauso txiki bat eman duela Itzarri Enpleguko BGAE etorkizuneko proiektu handi gisa finkatzeko bidean, eta, batez ere (eta garrantzitsuagoa), merkatuen aldetik hain negatiboa izan den ekitaldi baten aurrean, agerian utzi duela bazkide osoen konfiantza sendotu egin dela, Itzarri Enpleguko BGAEren ondareak aurreko ekitaldikoa berriro gainditu izanak erakusten duenez, gure historiako urte guztietan gertatu den bezala.

Aurten ere berretsi egin da Itzarriri emandako gizarte-babesaren gorakada nabarmena, eta babes horren ondorioz, azken urteetan ikusitako joera sendotu egin da: bazkide guztiek Erakundearengan duten konfiantza gero eta handiagoa. Horrek esan nahi du, emaitza negatiboa izan arren, Erakundearen ondarea handitzeaz gain, **kudeaketapean mila milioi euro** gainditu ditugula, eta hori mugarri garrantzitsua da, are gehiago gogoan badugu (hamazazpi urte atzera eginez) gure jarduerari hamar milioi euroko ondarearekin ekin geniola, eta zifra horrek sektorean garrantzi handiko aktore gisa kokatzen duela Itzarri.

Ekitaldiko errentagarritasuna negatiboa izan bada ere, paradoxikoa dirudien arren, oso alderdi positibo gisa nabarmendu behar da, oso emaitza negatibo txikia izan baita: -% 1,53an geratu da. Bereziki azpimarragarria da hori, kontuan hartuta ia aktibo guztiek izan duten portaera tamalgarria eta hain negatiboa.

Halaber, aipatzekoak dira mantendutako kostu txikiak, azken urteetan erakutsitako ildoari jarraituz. Zuzeneko gastuen edo egitura-gastuen ondorioz aplikatutako portzentajea ondarearen % 0,15 soilik izan da, lortutako errentagarritasun garbia ahalik eta gutxien urritzeko helburuarekin azken urteetan kostuei eusteko jarraitutako politika zorrotzari esker.

Ekitaldian nabarmendu beharreko beste gauza bat izan da Erakundea bere modernizazio teknologikoan eta prozesuen digitalizazioan egiten ari den ahalegina, efizientzia eta eraginkortasun operatiboa hobetzeko, baita bazkideei ematen dien arreta eta zerbitzua ere, hainbat gailuren bidez (ordenagailuak, mugikorrak, tabletak) sarbidea eta ekarpena ahalbidetuta, komunikazio telematikoa sustatuta eta online tramiteak egiteko plataforma bat garatuta, laster martxan ikustea espero duguna.

Itzarri, Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Kudeaketa-txostena

2022eko ekitaldia

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

2023RAKO AURREIKUSPENAK ETA BILAKAERA

2023ari begira, gure ustez, litekeena da Europa eta Estatu Batuak atzeraldian sartzea urtean zehar uneren batean. Errusia eta Ukrainaren arteko gerrak eragindako mendekotasun energetikoak bereziki eragingo dio Europari. Inflazio handiaren aurrean banku zentralek hartutako politika monetario murriztaileek ere pisu negatiboa izango dute hazkunde ekonomikoan. Nolanahi ere, espero dugu atzeraldia aurreko krisialdiekin alderatuta leuna eta ez hain iraunkorra izatea, lan-merkatuen sendotasunari, sektore desberdinetan burbuilarik ez izateari eta Txinaren faktore antiziklikoari esker. Ildo horretatik, 2023rako arrisku nagusiak honako hauen ondorioz etorriko dira: Europako energiaren merkatuan gerta daitezkeen distortsio berriak; Europako atzeraldia Estatu Batuetako atzeraldia batekin kateatzea; eta Txinako hazkundean ahulezia berriak agertzea Covidaren inpaktu espero baino handiagoagatik. Alde positiboari dagokionez, Ukrainan bake-egoera batek ezusteko atsegina ekar lezake, nahiz eta gaur egun ez dagoen horretan pentsatzeko arrazoi objektiborik.

Interes-tasei dagokienez, uste dugu banku zentralek aurten haiek igotzen jarraituko dutela, baina 2022an baino erritmo motelagoan. Merkatuek % 5,25eko tasa terminala deskontatzen dute gaur egun Estatu Batuetan (orain baino % 0,75 gehiago), eta % 3,50ekoa eurogunean (gaur egun baino % 1,50 gehiago). Inflazioari buruzko datuak lupaz aztertzen jarraituko da, banku zentralek inflazioa kontrolatzeko zeregina noiz bukatutzat eman dezaketen zehazteko, hasiera batean inflazioa iragankorra zela iritzita erratu ondoren.

Horrekin guztiarekin, hazkunde ekonomikoaren agertoki oso urria edo negatiboa ikusten dugu, baita interes-tasen igoera bat ere. Horren ondorioz, enpresen emaitzak ahuldu egingo dira marjina txikiagoen bidez —azken urteotan ez da horrelakorik gertatu—.

Beraz, esan dezakegu merkatuetan azken urteetako atzeko agertoki-aldaketa handiena izan dela. Azkenean, errenta finkoak gaur egun errentagarritasun dezente onak eskaintzen ditu, eta hori errenta aldakorrarentzat eragozpen bat da, azken urteetan ez baitzuen interesik izan bere lehia-aktibo nagusian. Horri gehitzen badiogu, lehen esan dugunez, egoera ekonomiko kaskarraren eta azken hamarkadan baino interes-tasa askoz handiagoen ondorioz enpresen emaitzek behera egitea espero dugula, 2023rako **errenta aldakorrarekiko** oso zuhur agertu behar dugu nahitaez. Hala ere, egia da gaur egun burtsa-merkatu dezente daudela balorazio-ratioetan batez besteko historikotik behera kotizatzen dutenak, eta horrek nolabaiteko koltxoia ematen du jaitsiera berrietarako. Estatu Batuak ratio handiagoetan kotizatzen duen merkatua izaten jarraitzen du (hein handi batean, bere indizean dagoen konpainia teknologikoen presentzia zabalaren emaitza), eta horrek beste merkatu batzuekiko portaera erlatibo okerragoarekin jarraitzera eraman lezake, 2022an ikusi ditugun Europakoekin, esaterako.

Errenta finkoari dagokionez, duela urtebete Europako Banku Zentralak tasen goranzko bideari lehenbailehen ekitea zen eztabaidagai nagusia, inflazioa iragankorra zen ala ez zalantzan baitzegoen. Hala ere, aurten, tasen goranzko bideari amaiera emango dion tasa marjinala kalkulatzean zentratzen da eztabaida, eta tasak maila murriztaile horietan mantenduko diren denboran, hurrengo 18-24 hilabeteetan inflazioa % 2ko helburura itzultzea lortzeko.

Tasen ingurune berri honetan, aurreikusten dugu ekonomiaren eta enpresa-mozkinen hazkunde txikiagoarekiko kezka 2022 osoan nagusi izan den inflazioaren narratiba gainditzen joango dela pixkanaka. Horrek aktiboak pixkanaka berresleitzea eragingo du, errenta aldakorrarekiko esposizioa murriztuz eta bonuekiko esposizioa areagotuz, horiek erakargarriago bihurtzen baitira interes-tasa altuagoetan eta enpresa-mozkinen ingurune beherakorrean, kasu honetan bezala.

Espero dugu 2023ak bi erdi izatea ikuspuntu inbertitzaile eta makroekonomiko batetik: atzeraldiarekiko kezkak hegakortasuna sortuko du kreditu-arriskuari gehien lotutako aktiboetan urtearen lehen erdian. Bonu korporatiboetan, hibridoetan eta mendeko finantza-zorretan erosteko aukera berriak egongo dira, oso etekin erakargarriekin.

Merkatuek tasen igoera handiak deskontatu dituzte eurogunean, gordailu-tasan % 3,25eko tasa marjinaleraino. Eta, aldiz, urtearen bigarren erdian interes-tasen etorkizuneko murrizketei buruzko itxaropenak sortzen hasiko dira, eta horrek errenta finkoko merkatu osoaren balio-handitze orokorra eragingo du. Horrek "carry" handiagoa eta kreditu-arrisku handiagoa duten estrategiak bultzatuko ditu.

Bestalde, egoera makroekonomiko honetan, merkatu pribatuen/ilikidoen (arrisku-kapitala, hazi-kapitala, funts higiezinak edo azpiegituretakoak...) erakargarritasuna murriztu egin da errenta finkoaren merkatuarekin alderatuta. Hortaz, errenta finkoak orain eskaintzen dituen errentagarritasun erakargarriek murriztu egin dituzte ordezko aktibo ilikidoetako inbertsioak (azken urteotan oso aktiboak izan gara horietan).

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpen askea. Desadostasunik balego, jatorrizko bertsioa nagusituko litzake)

2022K0 EKITALDIKO URTEKO KONTUEN ETA KUDEAKETA TXOSTENAREN AURKEZPENA

Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Gobernu Batzordeko kideek 2023ko martxoaren 24an aurkeztu dituzte 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion urteko kontuak (balantzeak, galdu-irabazien kontuak, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatutakoak) eta, era berean, urteko ekitaldi horri dagokion kudeaketa-txostena. Kide guztiek orri honetan sinatu dute, bat datozela adierazteko. Halaber, Gobernu Batzordeko idazkariak aipatutako dokumentuen orri guztietan sinatu du, horiek identifikatzearen ondorioetarako.

SINATZAILEAK — SINADURA

Olatz Garamendi Landa and.
(Lehendakaria)

Jose María Armentia Macazaga jn.
(Lehendakariordea)

Amaia Jauregiberri Goenaga and.

Jon Karlos Agirre Huerga jn.

Itziar Agirre Berriotxoa and.

Maria Rosa Pérez Esquerdo and.

Blanca Maria Guerrero Ocejo and.

Jon Arturo Uriarte Unzalu jn.

Ioseba Villarreal Olaizola jn.

Tomás Rodríguez Irimia jn.

Eider Casanova Alonso and.

Maider Portoles Nestar and.

Oscar Arenas Velasco jn.

Raúl Arza Vélez jn.

José Antonio de Leniz Aspiazu jn.

Juan Kruz Zubia Goikoetxea jn.